

Arrasate

P R E S S

1995eko
Urriak 27
294. zenb.



Afrikarrentzat Europar tokirik ez

Jabi Luengo Afrikako etorkinei laguntzen Ceutan



Sebero Altube, 7
ARRASATE
Tfnoa: 79 86 15

ZABALDU BERRIA!!!



SABURDI

urdaitegia • harategia

ALMACENES ARRASATE

Musakola auzoa, 26
Kataide industrialdea, 3. pabilioia
Tfnoa: 77 13 52 Faxa: 77 13 13
ARRASATE



UDAZKENEKO ESKEINTZA

- Berogailu kataliltikoa 13.900 pta.
- ASPES ikuzgailua 34 500 pta.
- ASPES bi atedun hozgailua 48.500 pta.
- ASPES "combi" a 1,70 panelgarria ... 69.900 pta.
- Telebista 14" 27.500 pta.

ALMACENES ARRASATEⁿ
erostean abantailak:

- *Muntaia eta erabilitako elektragailua batzea dohainik*
- 24 orduko S.A.T.a
- 5 urteko garantia
- Biltegiko prezioak

Nafarroako Bardeak

Mendi artean bizi garenok eta Araba eta Nafarroako lautadak ikusten ohituta gaudenok, badugu bestelakorik ere Euskal Herrian: Nafarroako Bardeak.

Zoruan, ia bertikalean dauden haitze-bakietan jaitxiesz gero, zartatutako zorua aurkitzen dugu, ur-erauntsien ondoren han gelditutako buztina lehortzean zartatua. Hankekin zapaldu ezker, hostore edo hojaldrezko tarta balitz bezala apurtzen da 3-4 zentimetroko kapa zartatua.

Aurrera jarraituz gero, piskana-piskana handituz doala ikusten da zuloa eta 6-8 m.ko altuera hartzen duela goraino. Haitzarteko hutsune horri jarraituz beste hutsune edo bide bat datorkio eskubitik eta aurrerago ezkerretik, zein den ebakidura nagusia eta zein bigarren mailakoa antzematea gaitza delarik.

Aldamenetan eta zoruan daude belar batzuk, zenbait sastraka, ardiren baten kaskezurra, buztin lehorrez tarreak bete eta nahiko pisu astuna duena.

Gora igota, landutako lurrik ikusten dira, tartean hainbat zulo, landare eta zuhaizka dituzte-l. Batzuetan, mahai baten itxurako zelaiguneak ikusten dira; lurrezko gazteluak bestetan, Castilde-tierra adibidez.

Artaldeak ere ageri dira han eta hemen eta baita bordak ere. Mendetan etortzen omen dira Erronkari eta Salazar-

eko artaldeak neguan. Eta erabilpenerako eskubideak omen dituzte inguruko herri jakin batzuek ere.


Egun, Estatuaren menpe dago lurralde hau; lehen Nafarroako erregearen menpe eta Nafarroa konkistatu ondoren, Gaztelako erregearen menpe egona omen da. Hauek Bardeez baliatzeko eskubidea eman zien hainbat herriri eta Erronkari eta Salazar haranetakoei. Hala ere eskubide honen jatorria ez ei da guztientzat berdina: gerran egindako merituak saritzea, erregeari emandako laguntza ekonomikoa ordaintzea, biztanlegoa erakartzea eta lehengo ohiturek jarraitzea dira hauek.

Diotenez abel hazkuntza zen aktibitate nagusia mende honetara arte. Baina orain, nekazaritzak aurea hartu omen dio abelzaintzari. Gainera erregadiorako putzu berriak egiten ari dira, adibidez Landazurian. Bestaldetik han dago militarren maniobragunea eta hainbat tiro eta bonba botatzen omen dituzte manio-bretan. Honi guztiari erasten badiogu

turismora doazen mendiko kotxe eta motoristen ibilerak, hemen ditugu Bardeetako higadura edo erosioa bizkortzen duten elementuak.

Euskal Herrian ditugun lurralde ezezagunetako bat da Bardeetako. Ezagutzea merezi duena.

RUFINA OLASAGASTI



• ARRASATE PRESS •

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Azoka kalea, 1. 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tfnoa: 77 05 65. Faxa: 77 09 40

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Beñardo Kortabarria. **Kazetariak:** Maria Agirre, Itxaro Zubillaga, Maider Egües. **Publizitatea:** Jaxone Mendizabal eta Alberto Garro (77 08 15). **Administrazioa:** Ikerne Altube eta Itsaso Errasti (Tfnoa: 77 08 15). **Maketazioa:** Goio Arana. **Kolaboratzaileak:** Arantzazu Loidi, Mikel Irizar, Blanka Jauregi, Esther Balanzategi, ASA taldea, Sabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Juan Bautista Agorria, Leintz Bertso eskola, Jose Mari Astigarraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Letona, Unai Loidi, Mikel Olabe, Nekane San Miguel, Karmele Perez, Sorginak, Kopi, Daniel Goikolea, Amaia Martiartu, Maite Martínez, Iban Astondoa, Haritz Larrinaga, Cesar Cimiano, Iker Letona, Leire Zubikarai, Koldo Zubizarreta, Joseba Vallés, Agerre, Rafa mungia, Mario Egües, Rufina Olasagasti, Alazne Portu. **Banaketa arduraduna:** Jabier Ozeta-AED. (Tfnoa: 77 12 28). © ARRASATE PRESS. Tirada: 6.200. **Lege-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).



ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Azaleko argazkiak: Jabi Luengo

ZENTRO PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak:

Diagnostikoa-Orientazioa

Peritutza Judizialak

Erreabilitazio funtzionala
(Psikomotritzitatea eta
hizkuntz bereziera)
Logopedia

Laguntza terapia

Mota guztietako eskola
arazoak, enuresia
(Ohe bustitzea),
eukopresia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
Tfnoa: 79 48 77
ARRASATE

Memesa

79 42 22




ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN


Aldizkari honek Arrasateko
Udalaren laguntza jaso du



Aldizkari honek
Gipuzkoako Foru Aldundiaren
laguntza jaso du



Aldizkari honek
Eusko Jaurlaritzako Kultura eta
Turismo Sailaren laguntza jaso du



LOGOPEDIA

ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ ARAZOAK

HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR ETA IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3 - 1º Esk.
Tfnoa: 79 79 46 • ARRASATE

FELIPE
MADINA

ZURAK

Zarugalde, 40 ARRASATE
Tfnoa: 79 13 78

Altzariak
Diseinua
Apainketa

M
ARENAZA

Bizkai, 1 ARETXABALETA
Tfnoa: 79 08 07



Alkoholarekin arazoak daukazu?

Agian,

"Alkoholiko

Anonimoek" lagundu ahal dizute!!

Alkoholiko Anonimoak

3. areako Informazio bulegoa
(Gipuzkoa)
Tfnoa: 61 93 38

•••••
Epaile finkoak

Zaldibar futbito txapelketan parte hartzen dugun jokalaria gara. Astero astero, partidu askotan, epailengatik sortutako arazo asko ikusten dugu.

Zaldibar txapelketak duen mailarako, epaile finkoak jartzea oso garrantzitsua izango litzateke. Arazoaren irtenbide onena da. Horretarako, uste dugu jendea konforme egongo dela; sariak zerbait murrizten badira, edo, nahiz eta txapelketa hasita egon, diru apur bat gehiago jarri behar bada. Guztion onerako da, arazo hau lehenbailehen konpontzea. Beraz, antolatzaileek, arazo hau seriooki kontuan hartuko dutelakoan.

Agur t' erdi.

PARTAIDE BATEK

tzita eramaten dut, baina askotan beldurrez joaten naiz. Arriskutsua da benetan.

Horregatik pasatu nuen oso ondo igandean. Gainera paisaia polita izan genuen Osintxuraino. Erreka oso zikina dago, askotan koloreduna da, baina ingurua polita da. Orain trenbidea konpontzen saiatu behar dugu, eta erreka garbitzea ere ez zen txarto egongo.

Beno, agur esan behar dut. Txaloak antolatzearen bizikleta ibilaldia eta ea noiz egiten den beste bat, erreza eta polita da eta.

IKER ETXEBERRIA

•••••
Autobus urbanoa jartzeko ordua

Pesak erabat aldatu du zerbitzua. Ordutegi berria eta gainera, hainbat geltokitan ez da geratzen. Herritarrak haserre. Normala, Musakola edo San Andres erdialdetik urrun daude eta Donostiatik bazatoz, adibidez, gogo gutxi izango duzu gero etxerako peregrinazioa hasteko.

Bestalde, zerbitzua bizkortu nahi duela eta hainbat geltoki atzean uzten dituzte Pesako autobusek. Egia esan, autobusak hiriburuetara ahal duten eta bizkorren iriteko nahi dugu eta horretarako ezinbestekoa da geltokiak gutxitzea.

Musakola eta San Andreseko herritarren haserrea ulertzen dut baina hiriburuetara joaten diren autobusak azkarragoak izan behar direla uste dut. Horrela, autoekiko dependentzia apur bat gutxituko litzatekela uste dut. Nik neuk eta beste batzuk ere, agian autobusa hartuko genuke Gasteiza joateko, bizkor-bizkor helduko ginela jakingo bagenu.

Ez zaizue iruditzen autobus urbanoa jartzeko ordua dela? Ondo deritzot berriz ere geltokiak jartzeko eskatzeko sinadurak biltzeari baina autobus urbanoaren aldeko sinadurak batuko bagenitu?

Amaia V.

•••••
Oharra

Zure iritziak gure gutunen sailean argitaratu nahi badituzu, izan itzazu kontutan honako baldintza hauek: Testua ez dadila 20 lerrotik gorakoa izan. Sinatzailearen izena eta telefonoa adierazi, nahiz eta argitaratzeko orduan gaitzitzen edo inizileaz argitaratzea nahi izan. Kontuan izan identifikatu barik datorren gutunik ez dela argitaratuko.

•••••
Bizikletan gustora

Esakerrak emateko idazten dut gutun hau. Joan den igandean Osintxuraino joan nintzen bizikletan, Lurrats-ekoekin, eta oso ondo pasatu nuen. Gozada bat da talde handiarekin batera joatea, kotxe barik ondoan. Arrasaten askotan nekeza izaten da bizikletaz irtetzea, kotxe asko ibiltzen da eta. Abiada handian gainera, eta hori oso arriskutsua da. Kaskoa jan-

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral
Setatik Setara.


Tfnoa: 79 26 99

Ikerne Heriz
Estetika Zentrua

Zarugalde, 54 etxabea
ARRASATE Tfnoa: 79 99 56
Rosa Mari ileapaindegian

- Depilazio argizari hotz eta beroarekin
- Depilazio elektrikoa
- Portzelana, gel eta fibrazko hatzazalak
- Beteile iraunkorrak

Gustatuko litzaizuke Juratuko partaide izatea?




Jon Zubizarreta
Langilea
(41 urte)

Ez nuke partaide izan nahi. Horrelako gaiek profesional-tasun handia eta kontzeptu batzuk argi izatea eskatzen dute.



Ana Espinosa
Langilea
(27 urte)

Beldur apur bat emango lirake. Kasua erraza izango balitz beharbada bai, baina zailtan ez nuke parte hartu nahi.




Jose Ignacio Peña
Langilea
(38 urte)

Uste dut ezetz. Erantzukizun handiegia iruditzen zait. Legeen gainean dakienak eman beharko luke erabakia.



Lucia Castilla
Langilea
(42 urte)

Ez nuke ardura hori eduki nahi. Gogorra da norbait errugabea ala erruduna dela esan behar izatea. Prestakuntza duten pertsonak egin beharko lukete hori.




Patxi Goikolea
Jubilatua
(62 urte)

Beharbada bai. Zuzen jokutzen ahaleginduko nintzateke. Baina denboraldi batez, eh!



Maria Jesus Martin
Langilea
(26 urte)

Bai, niri bai. Uste dut guztiok dugula iritzia emateko eskubidea.



Juan Carlos Alvarez
Langilea
(21 urte)

Ez. Pentsa norbait errudun dela esan eta hanka sartzen duzula... Ardura handiegia da.




Koro Abetxuko
Administraria
(44 urte)

Ez dut uste inor epaitzeko gai naizenik. Ez nuke partaide izan nahi.

ONGI ETORRI,
konpainia onean
egoteak badu
abantailik.


SEGUROS
BILBAO



Otalora Lizentziatua, 5

20.500 ARRASATE

☎: 79 70 67

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak
 Arrasateko Eskualde-Ospit.79 53 00
 Iguatorialdea79 05 00
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak)79 39 00
 (emakumeak)79 44 11
 Buru osasunerako zentrua79 90 11

Gurutze Gorria
 Bergara76 55 76

DYA
 Antzuola76 62 91

Anbulatorioak
 Arrasate (Larrialdiak)79 13 57
 • Txanda hartzeko: medikuntza orokorra eta pediatria77 03 45
 • Espezialitateak77 05 78
 77 12 63
 Oñati78 08 52
 Eskoriatza79 98 58
 Aretxabaleta79 74 58
 Aramaio(945) 45 51 16

Anbulantziak
 Gipuzkoako ambulanziaz45 87 44

Udaltzaingoa
 Oñati78 04 11
 Bergara76 14 69
 Arrasate79 14 39
 Aretxabaleta79 10 52
 Eskoriatza088

Ertzaintza
 Arrasate79 71 99

Suhiltzaileak
 Udal taldea79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea088

Matxurak
 Urak (udal zerbitzua)79 09 00
 Elektrizitatea (Iberduero)12 01 62
 Gasas900 40 05 23
 79 78 44
 79 76 78

Garraioak
 Taxiak79 12 22
 P.E.S.A.79 14 19

Hirugarren adinekoendako zentruak
 Iturbide Egoitza79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza79 81 57

Kontsumitzailearendako informazioa
 Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarteak79 87 77
 KIUB-OMIC79 51 55

Monterrongo liburategia
 Monterron77 01 05

GUARDIAKO FARMAZIAK

Ostirala 27
 Egunez eta gauez: Corcuera. Musakola.

Larunbata 28
 Egunez eta gauez: Irizar. Erguin.

Igandea 29
 Egunez eta gauez: Amezuza. Santamaina.

Astelehena 30
 Egunez eta gauez: Ruiz. Maala.

Asteartea 31
 Egunez eta gauez: Morales. San Andres.

Asteazkena 1
 Egunez eta gauez: Cuellar. Bergara
 Azkoaga. Ferrerías.

Osteguna 2
 Egunez eta gauez: Estella. Bergara.
 10ak arte: Español Iturriotz.

27 OSTIRALA

- **ZINEA**
 "Un paseo por las nubes" 7etan eta 10etan.
- **NATURISMOARIBURUZKO HITZALDIA ARETXABALETAN**
 Trill emakume taldeak antolatuta, hitzaldia arratsaldeko 7.30etan Loramendiren lokalean. Hizlaria: Joseba Bidaurragata.
- **NERABEAK ETA AISIALDIRAKO HEZITZAILEENTAILERRAREN HASIERA**
 Tailerra zortzi ordutan burutuko da San Andresko Gazte Txokoan ostiral arratsaldean eta zapatu goizean. Prebentzio eta Gazteria Udal zerbitzuek elkarlanean antolatuta.



BADMINTON ETA FUTBITO IKASTAROAK ESKORIATZAN

Badminton ikastaroa azaroaren 6, 7, 8 eta 9an. Klaseak goizez 11.30etatik 12.30etara eta arratsaldez 8etatik 9ak arte. Prezioa 14 urte gorakorentzat 500 pta. eta beherakorentzat 200 pta. Izena emateko azken eguna azaroaren 3an. Futbito monitore izateko ikastaroa azaroaren 17, 18, 24 eta 25ean. 20 orduko iraupena. Klase teoriko eta praktikoa. Prezioa: 5.000 pta. eta Deba Garaiko kirol zerbitzuetako bazkideentzat 4.000 pta. Ikastaroak Eskoriatzako kiroldegian emango dira.

28 LARUNBATA

- **ZINEA**
 "Un paseo por las nubes" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **LUDOTEKA IBILTARIA ERGUINEN**
 Txatxilipurdi AED-ko Ludoteka ibiltaria Erguingo eskolan. Orduetgia goizeko 11etatik ordu batera. OHoko 1, 2., 3., 4., 5., 6., 7., eta 8. mailakoei zuzenduta.
- **EMAKUMEENTZAT MUS TXAPELKETA**
 Emakumeendako mus txapelketa Leintze elkartearen arratsaldeko 4etan. Sari ugari.
- **KINTO AFARIA**
 1.949. urtean jaiotako kintoek bazkaria izango dute. Eguerdiko 12.30etan Meza San Frantzisko elizan eta 2.30etan bazkaria Meson Manolo-n.

- **TRONBOI ETA TRONPETA GELAKO BRASS ENTZUNALDIA**
 Arrasate Musikaleko areto nagusian arratsaldeko 6etan. Arrasate Musikalek antolatuta.
- **GEROA ANTZERKI TALDEA AMAIAN**
 Geroa eta Jacara antzerki taldeek "Por mis muertos" antzezlan eskainiko dute, Amaia antzokian gaueko 10.30etan. Sarrera: 700 pta. eta gazte txartelarekin 500 pta.

- **ERLAJAZIO MASAIA IKASTAROAREN HASIERA**
 Ostiralero emango dira klaseak goizeko 9.30etatik 11.30etara, Famili eta Gizarte Hezketarako zentruan.

29 IGANDEA

- **ZINEA**
 "Un paseo por las nubes" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **ENKARTELADA PORTALOIAN**
 Gose greban dauden presoekin alde eguerdiko 12etatik gaueko 8ak arte enkartelada Portaloiaren. Senideak-ek antolatuta.
- **SAN VIATOR V. PERRETIXIKU ERAKUSKETA**
 San Viator V. Perretixiku lehian parte hartu dutenen erakusketa goizeko 11etatik 2etara, Sebero Altube plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Udaletxeko arkupe-tan.

BERTSO AFARIA GATZAGAN

Azaroaren 3an Bertso afaria Gatzagako Pagedar taldeak antolatuta Gure Ametsa jatetxean. Bertsolariak: Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña. Prezioa: 2.500 pta. Izenematea azaroaren bata baino lehen Gatzagako Ostatu eta Arrate tabernetan.

HIESAREN AURKAKO JAIALDIA

Azaroaren 4ean Irungo Artaleku kiroldegian arratsaldeko 8.30etan. Antolatzaileak: Moscuco lagunak eta Harri beltza elkarteak. Taldeak: Legaleon antzerkia, Antiregimen, Dut, Baldin Bada eta Vomito. Sarrera 1.000 pta. eta aurrez erosita 800 pta. Arrasaten Ekaitz tabernan eros daiteke txartela.

30 ASTELEHENA

- **ZINEA**
"Un paseo por las nubes" 7etan eta 9.30etan.
- **EUSKAL HERRIA ASKATU KONTZENTRAZIOA**
Euskal herria Askatu lemapean kontzentrazioa plazan arratsaldeko 8etan. Amnistiaren aldeko Batzordeak antolatuta.

GOMA-ESPUMA IKASTAROA


AEDko Ixe- Ixa komiki taldeak antolatuta astelehenero arratsaldeko 6etatik 9etara. Ikastaroa azaroaren 6an hasiko da eta Gabonak arte iraungo du. AEDko lokalean emango da. Izena emateko 79 39 91 zenbakira deitu.

31 ASTEARTEA

- **ZINEA**
"Un paseo por las nubes" 7etan eta 10etan.
- **DIPOSITIBA EMANALDIA**
AEK-k antolatuta. Gaia: Antartida mendizalea da. Emalea: Jose Ramon Agirre "Marron". Arratsaldeko 7.30etan Monterronen.

JOSE M^o ARIZMENDIARRIETA X. LEHIAKETA

Gizabidea Fundazioak antolatuta Jose M^o Arizmendiarrieta X. lehiaketaren lanak aurkezteko epearen bukaera. Lehiaketako gaia: Tolerantzia



SAN KRISTOBAL ETA ALDAIKO KANPOSANTUEN ORDUTEGIA

Astebukaera honetan San Kristobal eta Aldaiko kanposantutak goizeko 10etatik arratsaldeko 6ak arte izango dira zabalik. Urriaren 30, 31 eta azaroaren 1ean, berriz, goizeko 8.30etatik arratsaldeko 7ak arte egongo dira zabalik bi kanposantutok.

MENDI IRTEERA BESAIDEREKIN

Azaroaren 5ean Urkiola, Artaun, Leungune eta Zornotzara mendi irteera. Izena emateko egunak astearte eta ostegunean arratsaldeko 7etatik 8.30ak arte Besaideren egoitzan.

1 ASTEAZKENA

- **ZINEA**
"Un paseo por las nubes" 5etan, 7.30etan eta 10etan.
- **DOMU SANTU EGUNA**

2 OSTEGUNA

- **ZINEA**
"Un paseo por las nubes" 7etan eta 9.30etan.
- **ZINE KLUBA**
"La muerte y la Doncella" gaueko 9.30etan Amaia antzokian. Zuzendaria: Roman Polanski. Sarrera: 350 pta eta gazte txartelarekin 300 pta.

ETOR ZAITEZ BERGARA ALDERA!

Arrazoi asko daude

- Monumentu artistikoak
- Goi mailako sukaldaritza
- Tostoi eta errelleno famatuak
- Espaloia, Bergarako kutsu nandieneko pasealekua, 20 metrotik gorako 50 plataneroak baino gehiagorekin, kiosko zoragarri bat eta oso denda bitxi bat, **Kanela!**



- Altzari, rustiko, garaiko eta gaurkoan espezialistak
- Konplementu orijinalen eskaintza zabalak
- Opariak
- Ezkontza zerrendak

Espaloia, 10 BERGARA
Tfnoa: 76 01 83

Edozein aurrekontura moldatutako prezio eskuragarriak.

Larunbat arratsaldetan zabalik.



"LA MUERTE Y LA DONCELLA" ZINE KLUBEAN

"La muerte y la doncella" Amaia antzokian gaueko 9.30etan. Zuzendaria Roman Polanski. Ariel Dorfman-enean oinarritutako filmea. Pertsonaiak nagusiak: Sigourney Weaver, Stuart Wilson eta Ben Kingsley.

BEHOBIA-DONOSTIA IZENEMATEA

Behobia Donostia herri lasterketara joan nahi duzuen guztiok Lora-mendi Kirolak dendan eman dezakezue izena. Epea arazoaren 4ean bukatuko da.

Zer dela eta bertso eskola bat Arrasaten?

“Gipuzkoar peto-petoa naiz eta bizitza osoan Erreal-zalea izan naiz. Gogoratzen dut oraindik argazki-albumean dudan argazki bat, Martinez, Kortabarría, Gorriti, Urreisti eta Satrusekin, orduan hasten zegoen. Arrasaten bizi zen batentzat zaila zen Donostiara joatea, baina noiz behinka osaba-izebekin joaten nintzen Atotxarra. Ahal izan dudan bakoitzean ihes egin dut Erreala jokatzen ikusteko. Politena Atotxan jokatzea izango litzateke. Anoeta estetika aldetik oso polita izango da, baina hor futbolak ez da Atotxan bezala sentitzen”.

Patxi Bedia, Egin, urriak 24.

egin

“...Orain hilabete gutxi, eta Epaile batzuk Oñatin bildu ginelarik, egunero ertzaintzarekin ditugun arazo gogorrek agerira atera ziren (gaitasun eza, prestakuntza falta, pertsona eta epailei errespetu falta, eguneroko hanka-sartzeak...) anekdota mordo bat, baina denak ildo beretik doazenean pasadizutxoa baino zerbait gehiago dagoela garbi geratzen da... Egunkarietan azaldu zenean, bilerara azkar deitu zuten... Bilera egin zen baina ez nik eta ez nire kideek ez dugu inongo zuzenketarik ikusi Martiarenaren mutilengan. Dena den holako ‘jefeekin’, nolako ‘indioak’ espero? Laister komisaldegiko ertzainburua etorriko zaigu epaitegietara ikerketa lanak eta sententziak nondik joan behar duten adieraztera”.

Nekane San Miguel, urriak 19.

Egunkaria

Bertso eskola joan den ostiralean hasi genuen eta lehen saiora hamairu gazte etorri ziren. Beharbada datozen asteetan hurbilduko da besteren bat baina taldea ez da asko gehituko.

Bertso eskola AED elkartearen ekimenez hasi zen martxoaren inguruan. Hasieran hogeitamar gazte eman zuen izena baina gero hamabost izaten ziren astero-astero etortzen zirenak. Gehienak pozik aritu ziren eta horregatik, lehenengo talde horretako bederatzik lagunek jarraitzea erabaki dute. Beraz, maila bat eta gogo badagoela

esan daiteke. Bertso-eskola ostiraletan izaten da eta ordu eta erdiz 11 eta 15 urte bitarteko gazteei bertsoetan egiten irakasten diegu. Gehienbat ariketak egiten dira baina teoria apur bat ere ematen zaie: errima landu, bertsoak osatu, doinuak ikasi... Ondoren, batzuk idatzizko bertsoetan aritzea erabakitzen dute eta beste batzuk bapateko bertsoetan egitea eta horren arabera ariketa desberdinak egiten dira. Kalera begira saio batzuk ere egingo dira, bertso afariren bat antolatuko da eta saioaren bat edo beste.

Lehenengo saiakean gustora aritu ginenez, orain jarraitzea erabaki dugu. Horrez gain, bertsolaritza bultzatzea da helburua eta uste dugu etorkizunean egon daitekeela izen handiko bertsolari arrasatearren bat.

Bukatzeko esan, norbaitek bertso eskolan parte hartzeko gogoia badu oraindik garaiz dagoela. Izena emateko AEDra jotzea baino ez da behar.



Aitor Zabalo
Bertso eskolako irakaslea



URONDO
elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa
Tfnoak: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76
ARRASATE

100 txirrindulari Bidegorriaren alde

Mendi bizikletaz ibilaldia izan zen igandean Lurrats elkarteak antolatuta. Eguraldi ona aprobetxatuz, 100 lagun inguru Arrasatetik Osintxura joan zen bizikletaz trenbide zaharraren bideari jarraituz. Partaideen iritziz ibilbidea laua eta erraza izan zen.

Manifestazioa eta kontzentrazioa

Gestorek deituta joan den ostiralean asanblada izan zen, gose greban dauden euskal preso politikoaren egorari buruz hitzegiteko. Ondoren manifestazioa hasi zen eta manifestariak batzoki aurrean egon ziren bost minutuz.

Herriko plazan, berriz,



Gorostidi txapeldun Arrasaten

Bixente Gorostidi atera zen txapeldun joan den domekan Arrasaten burutu zen bertsolari txapelketan. Gipuzkoako txapelketako azken laurdena zegoen jokoan eta sei bertsolari izan ziren nor baino nor. Gorostidik estu estu irabazi zuen J.L. Urdangarin eta berak berdindu egin zuten eta. Kartzelako gaien Gorostidik puntu gehiago lortu zuenez, bera izan zen lehenengo eta bigarren Urdangarin. Hirugarren Iñaki Zelaia atera zen, laugarren Xabier Zeberio, bostgarren Jesus Iribar eta sei garren Alfonso Jimenez.

kontzentrazioa izan zen ustez ETak hil zuen Angel Prieto poliziaren alde. Gesto por la Paz taldeak deitu zuen ekintza hori.

JAIOTZAK

- Amaia Cadiñanos Garai. Urriaren 14an.
- Josu Alberdi Martinez. 15ean.

EZKONTZAK

- Jose Alberto Hernandez Perrino eta Susana Vicario Manzebo. Urriaren 14an. Elizaz.
- Roberto Zubillaga Berezibar eta Maria del Carmen Murillo Hidalgo. 14an. Elizaz.

HILDAKOAK

- Gabriel Elkorobarrutia Herrarte. Urriaren 15ean. 91 urte.
- Lucio Okina Zeziaga. 16an. 85 urte.

GINEKOLOGI KONTSULTATEGIA


- Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
- Ekografia
- Mamografiak
- Bularreko patologiaren unitatea
- Menopausia
- Haurdunaldiaren kontrola
- Zitologiak
- Etab.

Profesionalen osatutako taldea emakumearen zerbitzura

Doktoreak: CRISTOBAL ESTOMBA GOMEZ MURGIENDO OTALORA RUIZ



Zerkaosteta, 17 etxabehea. ARRASATE Tfnoa: 79 20 18



* Marta Gomez

Arteari buruz

Irailaren 8tik 17ra Harresi Aretoan arte instalakuntza bat bisitatzeko aukera egon zen. Lanaren ezaugarri gisa aipatu dagoeneko ez dela horrela existitzen, denbora mugatu hartan iraun zuen bakarrik. Alde batetik aretoa denboran amaitzen diren erakusketetarako erabiltzen da, eta inauguraketa berri baterako hustu behar izan zen. Garrantzi gabeko kontua izan zitekeen, baldin eta erakusketan jarri ziren lanek bakarrik zentzua toki hartan izan ez balute. Bestetik, lanen eraketak berak ezinezkoa egiten du berregiketara: muntaia desegiterakoan deuseztu ziren. Beraz, argi dago sortze prozesuak hartu zuela protagonismoa, in-situ egindako lan baten izaera agerian geratuz.

Behin-behineko izaera indartzeko lanen mamirik eza eta hauskortasunaren aldeko apostua egin zen. Era honetan gainera, aretoan

askatasunez mugitzea galarazten zen. Ikuslea urrunduegin behar zen. Tokia hartuz jarri ziren forma guztiek helburu berbera zuten: toki bera ibiltezia bihurtzea. Ikusteko piezak ziren; zentzu horretan, espektakulua ziren. Ziren, oinarrian, guztiak gauza bera: erreprezentazioa. Tentsioa agerkizunaren gaiarekin sortzen zen, bere erreferentziak. Aretoko arkitektura ezaugarriak kanpoaldekin zuen kontaktoaz antzeztan ziren: eskailerak eta harresiak leihoarekin. Horretarako materiale desberdinak erabili ziren: aretotik kanporakoak, manipuluak;

.....

*“Oharmena
errekonozimendu
gisara piztu
nahi zen...”*

aretokoak bertakoak, eskua sartutakoak. Bere aldetik hauek errepikatu egiten dira, konbinaketa desberdinak eginez. Oharmena errekonozimendu gisara piztu nahi zen eta horrela obraren erreferentziak ingurura zabaldu.

Errepresentazioa obsesio bihurtzen da. Eskailerak, esate batera, pieza bakoitzean errepikatzen ziren, bere errealtatearen alde desberdinei jaramon eginez, baina betik zati hutsak bezala eta betik funtzio zehatz barik. Gorpua beraren kontzientziak igoezinak bihurtzen zituen. Errealitatearen behinbehinekotasuna nabarmen egiten zen, sinbolismoaren aberastasunaren aurrean. Baina ikuslea begiratzen duen tokira bidaltzerakoan, erakustaldiak ase-ezina sortzen zuen. Ikuskizuna txalotzea bezala zen azkenean konturatzeko, eskuak eurak direla kolpatzen dituzunak, eskunaba eskunabaren aurka.

Azkenean aretoaren bera izaera jartzen zen kolokan, bere izate arrazoia. Lehenik testuinguru gisa funtzionatzen du (artearena). Aretoa asmoa da batez ere: han erakusten denak, eta ez da gutxi, erakusteko gogoia du. Sinatua dago. Testuinguruaren indarra ezerezean uzteko modu bakarra horrelakoa izateko ezintasuna agerian jartzea da, ziskua menperatu, errealtatearekiko bere harremana omentzea, eskailerak igotzea eta harresiko kanpoaldean behealdetik oinez ibiltzea da.

* ARTE EDERRETAKO IKASLEA

USTEAK USTE

IN TSUMISIOA


Santamasetan txerriaren zozketa egiten den lez, azaroaren atarian soldaduzkarako zozketa gertu dugu. Baina txerriarenean ez bezala, azken honetan, errifak erosi edo ez erosi ez dago gure aukeran. Hau horrela, indarrean dagoen egoera honen aurkako erantzuna areagotu egingo da eta gure herrietako horra eta karteletan horra-koak irakur ahal izango ditugu besteak beste: intsumisioa, insumisioa, insumisiñue, insumisiyue; eta intsumitua, insumisioa, insumitua (kalean irakurritakoak guztiak ere). Aniztasun honetan molderik ofizialena intsumisioa dela dirudi. Hemen ere, ideia adierazteko euskarazko hitzak egon badauden arren, gaztelaniatik jaso eta euskal itxura eman diegu (oso erabiliak diren beste hitz batzuekin gertatu den bezala). Kasu honetan ordea, zatar samarra egiten da belarrira tsu hori. Hiztegiak ere, forma aldetik antzekoa den “insustantzial” dakar, eta ez “intsustantzial”. Hori bai, marketingarentzat izen aproposa da, Estatu espainol zein frantsesean ulerterraza da eta. Dena dela izenagatik ez dadila izan.

ANDER ETXEBERRIA

ARGI PLASTIC

- PVC eta Aluminioan egindako leihoak, atek, manparak...
- Lantegitik zure etxera zuzenean

**Eska ezazu aurrekontua
konpromezu barik**



Tailerra eta Bulegoa: Axeri, 3 Tfnoak: 77 11 30



**Taberna-jatetxea
Kafetegia**

- Eguneroko menua eta kartako menua
- Bazkari azkarrak, pizzak, hanburgesak, sandwichak,...

Prezio guztiz eskuragarriak!!

Larrea enparantza, 5 behe Tfnoa: 77 01 69



Bi pleno egingo dira gaur. Bata ohikoa arratsaldeko 7etan eta bestea ez ohikoa ordu bat beranduago.

Udal zergak eta tasak %3,5 igoko dira datorren urtean

Ordenantza fiskalak datorren urtean zenbat igoko diren onartuko da gaur egingo den plenoan. Bataz beste udal zergak eta tasak %3,5 garestituko dira eta aldaketarik egon badaiteke ere, 96rako gertatu diren ordenantza fiskalek aurrera egingo dutela espero da.

Udalaren gastuei aurre egiteko dauden zergei dagokionez, hiri lurraren gaineko zerga %1,9 igoko da; iharduera ekonomikoen gaineko zerga, enpresei eta komertzioei jartzen zaiena %1,5; eta ibilgailuen gaineko zerga, autoena %3,7. Udalak eskainitako zerbitzuak erabiltzeagatik ordaindu behar diren tasek horrela egingo dute gora: ur errezi-bua, ur tarifa, saneamendu tasa, zaborra eta ur kontagailuaren mantenimendua barne, %7,6 igoko da baina gutxieneko kontsumo kasuetan. Kontsumoa handiagoa denean, igotera ere handiagoa izango da. Banan-banan azalduta ura %3,5 garestituko da, zaborra %3,7 eta saneamendu tasa %100 igoko da. Ur Partzueragoak errekara ur garbia bidaltzeko inbertsioak egin behar ditu eta. Bes-

talde, kiroldegiko tasa %4,5 garestituko da eta Iturbide Egoitza %3,5. San Kristobalگو nitxoan prezioa %10 eta panteoiena %5 igotzea ere proposatuko da.

Moziok INEMen inguruan

INEMek jasandako sabotai ekintza salatzeko asmoz bi mozio aurkeztu dira Udalean. EAJ, PSE-EE eta EAren moziok zera eskatuko dio udalbatzari: horrelako ekintza basatiak salatzea, ondasun publiko eta pribatuaren kontra aritzen diren iharduera gaitzestea eta isiltasunarekin gertaera horiei babes politikoa ematen dienen jarrera salatzea. Gainera, alkateari horrelako ekintzak salatzeko eskatuko diote. EBak ere sabotai ekintza arbuiatzen duela dioten moziok jarri du, baina udalbatzari INEM berriro Arrasaten jartzeko nahia azal dezala eskatuko dio. Horrez gain INEMeko zuzendariak, alkateak eta oposizioko partaide batek bilera egitea proposatuko dute, erakunde horrek herrian izango duen kokalekua erabakitzeko.

PESari informazioa eskatu

Asteazkenean bilera izan zuten Xabier Zubizarreta alkateak eta PESako arduradunek. Autobus enpresak zerbitzua ugaritu duela eta, ordutegia nola geratzen den zehazten duen txostena eskatu zion PESari alkateak. PESA jendeaurrean informazioa emateko prest geratu zen.

Musakolako eta San Andreseko biztanleak oso haserre daude auzo horietako geltokietan ibilbide luze-ko autobusak geratzen ez direla eta. Horregatik, sinadurak biltzen hasi dira eta dagoeneko San Andresen 1.500 auzotarren sinadurak bildu dituzte. Santa Teresa eta Erguingoak ere gauza bera egiten hasi dira eta sinadura guzti horiek Udalera eramateko asmoa dute.

Enpresa ekintzetarako zentrua

Zerrajeraren lurzoruan enpresa ekintzetarako zentrua eraikitzeko asmoak aurrera jarraitzen du eta proiektua idaztearen ardura Judea enpresari adjudikatu dio Udalak. Enpresa ekintzetarako zentruan hainbat ekimen enpresarialek txoko bat izango dute.

Arrasateko Udalak, Sprit erakundeak eta Saiolanek parte hartuko dute zentru horren eraketan.

Arreta
handiko sukaldeak

Garagartza auzoa. Tfnoa: 79 76 58

UGARAN
jatetxea

Giro
abegikorra

ARRASATE



Aldaiko kanposantuan ez da ehorzketarik egiten baina familiartekoak ez daude ados.

Akordiorik ez kanposantuen arazoaren inguruan

Aldain panteoia duten familiartekoek kanposantu horretan ehorzketak egin daitezkeen eskatzen jarraitzen dutenez, kanposantuen inguruko auziak ez du amaierarik. Orain dela hilabete batzuk, 92an egindako proposamena gogorarazi zien Udalak familiarteko horiei. Horren arabera, Aldain panteoien bat dutenek, 8 San Kristobalen besteren bat eskuratzeko erreztasun handiak dituzte. Bakar batzuk proposamena onartu zuten baina gehienek ez, Aldai parkea izateaz gain panteoietan ehorzketak egiten jarrai dezaten nahi dute eta. Aldaiko kanposantua irekiz gero, gainera, mantenimendua bere gain hartuko

dutela adierazi diote Udalari. Aldain panteoia duten jabeen familiartekoren bat hiltzen bada, gorpu horiek San Kristobalen lurperatzen dira baina aparte bezala. Orain arte kasu horretan zeuden zortzi lagun hil dira eta guzti horiek nitxoetan daude baina aparte.

Bestalde, apurka-apurka panteoien salmenta aurrera doa San Kristobalen. Orain arte 89 panteoi saldu dira eta nitxoetan, berriz, 240 ehorzketa egin dira. Aurten erraustegi berria erosi da eta kanposantura heltzeko beste bi bide egokitu dira. Santamarinatik ezezik, Monterrendik eta Meatzerrekatik ere joan daiteke San Kristobalera.

Arrasatearrak Juratuan

Auzitegi Probintzialak gutun bana bidali die Juratuan parte hartzeko zozketa bidez aukeratuak izan diren 73 arrasatearrei. Azaroaren 15era arte ez parte hartzeko arrazoiren bat dutela uste dutenek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute. Hala ere, Juratuaren partaide izatera behartuak daudenez, ez parte hartzeko arrazoiak oso urriak dira eta lagun horientzat zaila izango da aitzaki onargarriak aurkeztea. Erreklamazioak aztertutakoan behin-betiko zerrenda aterako da. Gipuzkoa osoan 2.254 lagun izendatu dira Juratuko partaide izateko eta herri bakoitzak duen biztanle kopuruaren arabera erabaki da herriko zenbat aukeratu.

Juratuarekin osatutako epaiketak udaberri inguruan hasiko dira egiten, eta orain aukeratu direnak 95 eta 96rako izendatu dira. Bederatzi lagunek eta bi ordezkok osatuko dute Juratua eta lagun horiek magistratuaren laguntza izango dute, epaiketen emaitza emateko. Partaideek 9.300 pezeta jasoko dute lan egun bakoitzeko.



Kalitate gorena leihoetan.

LANTEGIA ETA ERAKUSKETA

Kataide poligonoa, 4. pabilioia. Tfnoa: 77 01 57 ARRASATE

LARUNBATAK LARUNBATAK

INGELESA eta ALEMANA
APUNTA ZAITEZ ORAINDIK EGIN EZ BADUZU

LARUNBATAK
9.30etatik 12.30etara

CIM
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Araba Etorb., 4
 ARRASATE

Tfnoak: 79 01 32
 79 65 54



Estatuko lau espetxetan ari dira egiten gose greba euskal preso politikoak.

Presoen egoera salatzeko mozioa eta enkartelada

Euskal preso politikoak egiten ari diren gose greba dela eta, Senideak elkarteak mozioa aurkeztu du Udalean. Gaurko plenoan aztertuko den mozio horrek zera eskatuko dio udalbaltzari: presoek bizi duten sakanaketa gaitzetsi dezala eta zinegotziek osatutako ordezkariak batek gose greban dauden preso arrasatearrak bisita ditzatela, ikusitako irregulartasunak salatzeko. Gainera, presoak Euskal Herrira ekartzea eskatuko dute Senideak-eko kideek.

Gose greba Estatuko lau espetxetan egiten ari dira eta tartean hiru preso arrasatear daude: Jesus Mari Zabarte, Salto del Negron

eta Jon Agirre eta Jose Gabriel Urizar Tenerifen. Gartzelako baldintzak salatu eta giza eskubideak errespetatu daitezzen hasi zuten gose greba besteak beste.

Mozioa ezezik, zortzi orduko enkartelada ere iragarri du domekarako Senideak elkarteak. Asteartero egiten duten bezala, domekan eguerdiko 12etatik 8etara Portaloian bilduko dira presoen eskubideen alde. Senidekoen berbetan, "preso politikoek jasan behar duten egoeraren gainean jendea sensibilizatzea lortu nahi da ekintza horrekin. Era berean, presoek espetxeetan duten egoera zein den jakinarazi nahi dugu".

Ebakuntza berriak Eskualde Ospitalean

Eskualde Ospitalean hasi duten kirurgi berri baten bidez, besikula kentzeko ez dago sahelean ebakirik egin beharrik. Sistema hori erabilia gaisoari lau hobi sartzen zaizkio, eta horietako bat kamarada. Kamarak jasotzen duen irudiaren bidez zirujauak kanpoan dagoen pantailari begiraturaz eta beste hiru hobiak mugituz egiten dute lan.

Iazko martxoan hasi ziren Eskualde Ospitalean era horretako ebakuntzak egiten eta gaur arte 52 egiten dira. Ospitaleko arduradunek asteazkenean azaldu zuten, orain arte emaitza onak izan dituzte eta pozik daude kirurgia horren bidez egindako ebakuntzekin.

Kirurgia moeta horrek abantaila ugari ekartzen dio gaisoari. Ebakuntza ostean askoz ere min gutxiago izaten du, bizkorrago sendatzen da eta markarik ez zaio gertatzen. Kasuak horrela eskatzen duenean hala ere, besikula handitua dagoenean edo arazoak sor daitezkeela uste denean, sahelean ebakia eginez burutzen da ebakuntza.



LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Argazkikoak Kaio I eta Kaio II taldeko jokalariek dira. Zapatuan elkarren kontra jokatu zuten Haron. Kaio IIkoak nagusitu ziren 6 - 5 eta jakin izan dugunez gol batzuk oso eztabaidagarriak izan ziren. Azkenean futbito partidua bazkari eder bat egiteko aitzakia besterik ez zen izan.



"Egunkaria" berrituaren aurkezpena egin zen ostiralean Donostian eta Arrasate eta inguruko talde polita elkartu zen. Argazkian aurpegi ezagun asko agertzen da eta han zeuden beste bi falta dira:

Mikel Irizar eta Xabier Zubizarreta alkatea. Aurkezpena ondo egon bazen ere, gosez etorri ziren gure lagunak. Tri-pontziak izango dira edo gutxi jarriko zuten? Hor dago Koxka!




Alberto Iñurategi Mondeo Turbo Diesel berria estreinatuko du eta kotxearen bila Mugarri joan zen anaiarekin batera. Iñurategi-

gi anaien azken mendi proiektua bultzatzen ibili da Mugarri eta beti izan du harremana Aretxabaletako anaiekin.



ONCEko 16. 453 zenbakia 50 milioi ekarri zituen Arrasatera joan zen ostegunean. Erositako boleto bakoitzak bi milioi eta erdi pezeta jaso du. Arrasaten hogeit hamar boleto saldu ziren. Hamar Migel Fernandezek saldu zituen Maala inguruan eta beste hamarrak Josetxo Frailek Anbulategian. Saltaileek esan digutenez saria oso banatuta dago. Zorionak saritu guztiei!



• ARTEA •
Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK
Laminak, Izpiluak,
Margoak
Ferrerias, 11 Tfnoa: 77 10 95
ARRASATE

Yo a z oinetakoak
ARRASATEN ZABALDU BERRIA!!
Biteri, 13 Tfnoa: 79 21 71
ARRASATE
Barrenkale, 9 Tfnoa: 76 22 86
BERGARA


BAZAR
TOKI ON
**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**
J. Carlos Guerra, 1
Tfnoa: 79 91 64 ARRASATE

IZEN PROPIOAK

● ASA taldeak antolatutako "Gazteok bizikletan" argazki lehiaketaren irabazleak hauek izan dira: **Jabi Ozaeta** arrasatearra lehen saria zuri-beltzezko argazkien sailean, eta **Fernando Gomez Trapagarangoa** bigarrena. Irantzu Lejarza basauritarrak kolorezko argazkien sailean lehen saria eta bere ahizpak Estibalizek bigarrena irabazi dute. Gazteen mailan irabazlea **Gaizka Olabarrieta** arrasatearra izan da eta bigarrena **Jon Sagasta** baita arrasatearra ere.

● **Kaitin Allende** eta **Alazne Leturiaga** arrasatearrak Arkoko 96 Gida egiten ari dira. Kaitinek 23 urte ditu eta kazetaria da, Alaznek 24 urte ditu eta enpresa zientziak ikasi zituen.

Daniel Uribarren eta Jose Zeziaga Lurdese-
ra abiatu ziren oinez
urriaren 12an, eta 8
egunetan Euskal
Herriko eta Frantziako
errepidetan tipi-tapa
ibili eta gero, ostirale-
an bueltatu ziren.
Azken eguna arte
eguraldi ederra lagun,
ezuste barik egin dute
bidaia. Hain ondo pasa
dutenez esperientzia
errepikatzekotan
daude biak.



Laurogeita hamar urtetik
gorako **aiton-amonei**
ostiralean omenaldia
egin zieten Abaroan. Arrasa-
ten 44 dira 90 urte baino
gehiagokoak, 37 emakumez-
koak eta beste 7ak gizakume-
ak. Ostiralean 14 hurbildu

ziren Abaroara. Bildutakoek
merienda gozoa dastatu eta
euren adineko lagunekin
berba egiteko aukera izan
zuten. Gainera guztientzat
opari bat egon zen. Zorionik
beroenak, 90 urtera heltzea
ez da nolanahiko gauza eta!



LASO-ARREGI


Eusebio eta Anabel
urriaren 23an ezkondu
ziren Arantzazun eta
bazkaria Zelai -Zaba-
len izan zuten. Ezkon-
bidaian Kenia eta Islas
Sheycheilles-ra joan
dira. Zorionak !

PEUGEOT
Salmenta eta
zerbitzua

**IBABE
GARAJEA**

MEKANIKA, TXAPA ETA PINTURA
Gesalibar auzoa, z/g. Tfnoa: 79 99 61 ARRASATE

Elektroinjekzio
Zerbitzua



ARRASATE KONPONKETAK


Zaldispe kalea, 5 Tfnoa: 79 95 41
ARRASATE

LORAMENDI KIROLAK

ESKI
BEHERAPENAK!

TXAMARRAK
BOTAK
EKIPOAK
TABLAK


15 egunetan!



weru[®]
Ate + leihoak



Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tfnoak: 79 24 12 eta 79 97 95 ARRASATE



Ezagutu itzazu PVCren
bitartez gaur egun
eskura dauzkazun
leiho miresgarriak, ez
hotzik, ez berorik, ez
soinurik...

Zaldibarko Futbito Txapelketa

*Hirugarren ihardunaldia •
Protagonistak: Jon Beitia eta
Gregorio Gallego • Taldeen
aurkezpena: Kirten Tropel,
Lautherbrunner, Okoretegi
Taberna eta Borrock'n Roll*



Hirugarren ihardunaldian Tronko-teak taldea txapelketatik kanpo geratu da. Ikutixotarrei familiako kide bat ezkondu zitzaien eta ez ziren aurkeztu domekan goizeko 9etan Kamasutra taldearen kontra jokatu behar zuten neurketara. Gainerakoan normaltasuna izan da nagusi. Orain arte gol gehien Orlandos Piratas taldeak sartu ditu 31 guztira. Baneuko bestalde, 33 golekin gehien jaso dituen taldea da.

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte
eta ostiral
5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

Lore

Lurrindegia

Olarte kalea, 10 ARRASATE
Tfnoa: 79 52 50

beatriz

oinetakoak eta
poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 33
ARRASATE

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea 3,
Tfnoa: 79 31 99

Sailkapenak

A taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Orlando Piratas	3	3	0	0	31	5	6
Sokoakoak	3	2	1	0	20	11	5
Arrasate Kirolak	3	2	1	0	10	6	5
Argi Ibili	3	2	1	0	19	12	5
Totem	3	2	1	0	11	5	5
Jotakabau	3	1	2	1	11	10	4
Sortu Informatika	3	2	0	1	26	12	4
Kamasutra	3	2	0	2	9	6	4
Frantziskanner	3	1	1	1	10	8	3
D.A Iriztu	3	1	0	2	9	14	2
Alealee	3	1	0	2	9	16	2
Toss Tehaman	3	1	0	2	8	22	2
Uglys Txinato	3	0	2	1	12	13	2
Kakajauri	3	1	0	2	11	13	2
Gualtrapas	3	1	0	2	10	13	2
Tronkoteak	3	0	1	2	2	8	1
Bukanak	3	0	0	3	6	15	0
Gaztetxokoa	3	0	0	3	7	33	0

B taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Okoretegi Taberna	3	3	0	0	13	2	6
Txeyenex	3	3	0	0	14	4	6
Fosforos	3	3	0	0	17	6	6
AC Surkos	3	3	0	0	12	8	6
Altza Porru	3	2	0	1	13	7	4
Lorategi	3	2	0	1	8	5	4
6º Proiektua	3	2	0	1	14	8	4
Adelaida haizea	3	2	0	1	24	11	4
Hirei	3	2	0	1	9	7	4
Berango sukaldeak	3	1	0	2	8	8	2
Aizpun Bila	3	1	0	2	5	9	2
DKB	3	1	0	2	11	17	2
Ojo Avisore	3	1	0	2	11	17	2
Los heredia	3	1	0	2	7	6	2
Kopyprest	3	0	0	3	6	24	0
Fraguel Gol	3	0	0	3	6	14	0
Los Dalton	3	0	0	3	6	17	0
Kirten tropel	3	0	0	3	3	16	0

D taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Anbotoste	3	3	0	0	17	3	6
A ti que te importa	3	3	0	0	12	7	6
Betrayer	3	2	1	0	14	10	5
Trikiti	3	2	0	1	16	8	4
Borrock roll	3	2	0	1	10	6	4
Nuevo taberna	3	2	0	1	14	8	4
Ganbelas	3	2	0	1	12	11	4
Irati STS	3	2	0	1	10	7	4
Lautherbrunner	3	2	0	1	17	11	4
Los Dimy	3	1	1	1	7	8	3
Insert Coin	3	1	0	2	9	10	2
No Comment	3	1	0	2	9	11	2
Arrasate Zoo	3	1	0	2	5	10	2
Txarokis	3	1	0	2	15	10	2
Cont Fercon	3	1	0	2	12	23	2
HMKL	3	0	0	3	7	23	0
Potrosorri	3	0	0	3	2	11	0
Elisabeth	3	0	0	3	3	14	0

E taldea

	PARTIDUAK				GOLAK		PUNT. Guzt.
	Jokat.	Irabaz.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	
Pub People	3	3	0	0	29	8	6
Aurrera Bolie	3	3	0	0	9	3	6
Cerv leintz	3	3	0	0	14	4	6
Danok Lagun	3	2	1	0	16	9	5
MSM Inge	3	2	0	1	13	3	4
Ke oxtias	3	2	0	1	30	12	4
Koka Juniors	3	2	0	1	12	6	4
Kinito team	3	2	0	1	14	12	4
Zotz Motz	3	2	0	1	10	12	4
Artzankos Udalaizt	3	1	1	1	9	7	3
Leya	3	1	0	2	9	10	2
Ex Lete	3	1	0	2	16	19	2
Perrahotsa	3	1	0	2	7	10	2
Pepelus	3	0	1	2	6	15	1
Petroleros	3	0	1	2	3	10	1
Kriskibalda	3	0	0	3	6	17	0
Resakas	3	0	0	3	3	19	0
Baneuko	3	0	0	3	3	33	0

Emaitzak

A Taldea

Kakajauri 2 - Bukanak 1
 Arrasate Kirolak 2 - Argi Ibili 2
 Orlando P. 12 - Gaztetxokoa 1
 Sortu Informatika 7 - Toss Tehaman 2
 D,A Iriztu 2 - Totem 5
 Kamasutra 1 - Tronkoteak 0
 (Ez aurkeztua)
 Gualtrapas 4 - Alealee 2
 Frantziskanner4 - Uglys Txinato 4
 Jotakabau 4 - Sokoakoak 4

B Taldea

Los heredia 3 - Berango Sukald. 0
 AC Surcos 5 - Ojo Avisore 3
 Txeyenex 5 - Aizpun bila 0
 Hirei 4 - Fraguel Gol 3
 Adelaida Haizea 12 - Kopyprest 2
 DKB 1 - Fosforos 6
 Kirten Tropel 3 - 6º Proiektua 6
 Lorategi 3 - Los Dalton 2
 Altza Porru 2 - Okoretegi Tab. 4

E Taldea

Exc Lete 2 - Zotz Motz 3
 Pub People 6 - Resakas 0
 Pepelus 2 - Petroleros 2
 Aurrera Bolie 1 - MSM Ingenier 0
 Danok Lagun 3 - Artzankos Udalaizt 3
 Kriskibalda 3 - Kinito Team 7
 Leya 1 - Perrahotsa 3
 Ke Oxtias 4 - Koka Juniors 3
 Baneuko 0 - Cer Leintz 6

D Taldea

Const Fercon 6 - Insert Coin 5
 No Comment 1 - Anbotoste 3
 Betrayer 5 - Los Dimy 3
 Potrosorri 0 - Nuevo Tab. 6
 Ganbelas 3 - Borrock Roll 2
 Lautherbrunnen 7 - Elisabeth 1
 Irati STS 3 - Arrasate Zoo 0
 Ati que te importa 4 - Trikiti 2
 HMKL 1 - Txarokis 9

Hurrengo partiduak

Larunbata 28

Zaldibar

8.50 Ojo Avisore - Kopyprest
 10.00 No Comment - Elisabeth
 11.00 Los Heredia - Txeyenex
 12.00 Danok Lagun - Perrahotsa
 13.00 MSM Ingenier - Koka Juniors
 14.00 Anbotoste - Borrock Roll
 15.00 DKB - Kirten Tropel
 16.00 Argi Ibili - Totem
 17.00 Ganbelas - Arrasate Zoo
 18.00 Aurrera Bolie - Baneuko
 19.00 Kriskibalda - Leya

Iturripe A

11.00 Kakajauri - Orlando Piratas
 12.00 Pub people - Kinito Team
 13.00 Bukanak - Frantziskanner
 14.00 Insert coin - A Ti Que te importa
 15.00 Toss Tehaman - Uglys Txinato
 16.00 Cons Fercon - Betrayer
 17.00 Resakas - Artzankos Udalaizt
 18.00 Berango Sukaldeak - Lorategi
 19.00 Potrosorri - HMKL

Iturripe B

13.00 Zotz Motz - Ke Oxtias
 14.00 Hirei - Altza Porru
 15.00 Fraguel gol - Los Dalton
 16.00 Adelaida - 6º proiektua
 18.00 Los Dimy - Txarokis
 19.00 Kamasutra - Gualtrapas

Igandea 29

Zaldibar

8.50 Nuevo Taberna - Trikiti
 10.00 Gaztetxokoa - Sokoakoak
 11.00 Exc Lete - Pepelus
 12.00 AC Surcos - Fosforos
 13.00 Petroleros - Cer Leintz

Iturripe A

11.00 Aizpun Bila - Okoretegi tab.
 12.00 Sortu Informatika-Jotakabau
 13.00 Lautherbrunnen - Irati STS

Protagonistak

Jon Beitia
6. Proiektua

- Nolakoa izan da partidua?
- Hasieratik gogorra eta lehiatsua baina azkenean irabazi egin dugu. Giro jatorra egon da gure artean eta gol gehien sartu dituenak irabazi du.
- Bigarren fasea nola ikusten duzu?
- Bigarren fasera pasatzea gatxa izango da, talde onak daude. Dena dela, ez dugu itxaropena galdu.
- Zer da garrantzitsuen



jokatzea edo irabaztea?
— Hasieran jokatzea baina txapelketan buru belarri sartutakoan, guztion

helburua irabaztea izaten da.
— Nola sortu duzue taldea eta nondik dator izena?
— Lagunak, auzokoak gara jokalaria eta izena 6. urtea delako jarri diogu.
— Talde faboritoak?
— Betikoak Adelaida, Argi Ibili, baina urtero bezala sorpresaren bat egongo da.
— Arrasate Presseko Zaldibar txapelketari eskeintzen dion gehigarria zer iruditzen zaio?
— Ondo dago, bizitasuna ematen dio txapelketari. Nik neuk aldzikaria jasotzen dudanean lehendabizi hori irakurtzen dut.

Labur

■ **4. ihardunaldia** datorren asteburuan jokatuko da eta guztien artean lau partiduko gomendatzeko modukoak: **Argi Ibili eta Totemen artekoa** zapatuan arratsaldeko 4etan Zaldibarren. **Iturripe An** zapatuan eguerdiko 12etan, **aurrez aurre Pub People eta Kinito team.** **Iturripe Bn** 5etan **Adelaida Haizea eta 6º Proiektua** taldeen arteko partidua egongo da ikusgai. **Domekan** beste bi neurketa interesgarri: **12etan Zaldibarren AC Surcos eta Fosforosek** jokatuko dutena eta **Iturripe An Aizpun bila eta Okoretgiren** artekoa goizeko 11etan.

■ **Joan zen asteburuan** 195 gol sartu ziren. **Gol gutxien sartu den ihardunaldia** izan da. **Taldez talde goleatzaileena D-a** izan da **61 golekin, A-n 59 sartu dira, E-n 49 eta Bn 26** besterik ez.

Gregorio Gallego
Kirten Tropel

- Nolakoa izan da 6º proiektua taldearen aurkako neurketa?
- 6 eta 3 galduta, ezin esan ondo ibili garela. Partidua galtzen hasi dugu, gero golak etorri dira baina azkenean defentsan ez gara fin ibili eta berriro galdu.
- Nola doa txapelketa?
- Petral oso petral. Oraindik ez dugu neurketarik irabazi eta B taldeko azken tokian gaude. Gainera partidu honetan

sartu ditugu txapelketako lehen golak.
— **Zein da zuen helburua?**
— Neurketak irabaztea eta ahalik eta urrutien heltzea. Hala ere, sailkapena ikusita, zaila izango dugu hurrengo fasera pasatzea..
— **Zer aldatuko zenuke txapelketan?**
— Epaileak. Nire ustez finkoak izan beharko lirateke. Ez zait gustatzen jokalaria epaile izatea, arriskutsua izaten da askotan.
— **Talde faboritoak?**



—Argi Ibili, Adelaida baina guztien artean Ke ostias eta Fosforos ikusten ditut.

Baster-alde

Jatetxea

Denboraldiko platerak, giro onenean

Galartza auzoa ARETXABALETA

Tfnoa: (943) 79 24 58

Elena

Bizkaia Etorbidea, 1 etxebaia ARRASATE Tfnoa: 77 14 24



Kirten Tropel



Lautherbrunner



Okoretegi Taberna



Borrock'n Roll

Harpidedun: berritu edo oparitu harpidetza!




Arrasatetik kanpo ARRASATE PRESS jasotzen dutenentzat. Arrasatetik kanpokoentzat ARRASATE PRESS oparitu nahi dutenentzat.

Gure kontu korrontean **2.500 ptako** diru sarrera egin dezakezu **urriak 31a baino lehen** kontu korronte zenbaki hauetako batean:

- **KUTXA 001026694.8** (Portaloiko bulegoa).
- **EUSKADIKO KUTXA 001.002.7600** (Iturriotz kalekoa).

Ingresoa egitean garbi adierazi, mesedez, aldizkaria zeinen izenean jaso behar den.

ARRASATE PRESS kanpotar bati bidali nahi badiozu zatoz gure bulegoetara eta bertan informatuko zaitugu.

 **77 08 15**

Azoka Kalea, 1 • ARRASATE



Jabi Luengo Ceutako Angulo-n dauden hirurehun etorkinekin ibili da lanean.

Ceutan ametsik ez

Amestutako bizitzaren bila iristen dira Afrikako hego alde-tik baina era guztietako hesiak gainditu eta gero, oso bestelako errealitatea aurkitzen dute. Somalia, Ruanda, Burundi,.. eta Saharatik beherako Afrikatik joandako 300 bat etorkin dau-

de pilatuta Angulo izenez eza-gutzen den toki txiki batean, Ceutan. Norabide barik erres-identzia baimenaren zain daude guztiak. Estatura edo Europara joateko ezinbesteko den baimen hori gutxi batzuk lortuko dute, gainontzekoak etsipen handiz

ahaleginarekin konformatu behar. Egun hauetan Ceutan ger-tatutako istiluak etorkin hauek bizi duten egoera jasanezinaren ondorio bat baino ez dira izan. Afrikar hauei laguntzen egon zen Jabi Luengo, tolosarra izatez bai-na Arrasaten ikasten duena.

Itxaro Zubillaga

Tolosar honek iaz ber-tan izandako lagun bat ezagutzen zuen eta joan aurretik Aita Zuri-en kongrega-zioko apaiz batekin egon zen.

Lagunak eta apaizak esanda-koarekin harrিতuta etorkinei laguntzeko asmoz abiatu zen uztaillean, Estatuko beste 20 lagunekin batera Ceutarantz.

Ceutan Aita Zuri-en elizan bizi ziren Estatutik joandako borondatez laguntzaileak.

Goizean Musulman auzo bate-ko hurrei klaseak ematen zizkieten eta arratsaldean Angulora joaten ziren etorki-nekin egoteko.

ANGULO KO BIZITZA

Anguloa harresiz ingura-

tutako tokia da. Lehen dis-koteka zena etorkinen bizile-ku da gaur egun. Etorkinen mugimendua duela 3 urte hasi zen Ceutan. Hasieran gutxi zirenez Aita Zuri-en elizan egoten ziren, baina denbora gutxitan etorkinen kopurua

laukotu denez, elizatik irten eta Anguloa egokitu zuten bertan bizirik iraun ahal izateko. Anguloan ez dira Ceutarrak sartzen, etorkinak baino ez. Iaz 80 zeuden, aurten berriz, 300 lagunetik gora "Egoera penagarrian bizi dira. Bi gela dute ohe gutxirekin, horregatik batzuk lurrean egin behar dituzte lo edo koltxoiak konpartitu. Tokia hain txikia denez txabolak egin dituzte kartoiak erabiliz. 300 afrikarren garbitasunerako bi iturri eta bi dutxa besterik ez dago. Jateko ere gutxi".

Ceutara heldu artean bidaia luzea egin behar izaten dute afrikarrek, beti gordeta. Ilegalak dira. Batzuk itsasontzietan iristen dira polizoi moduan; beste batzuk oinez, basamortua zeharkatuz. Asko eta asko bidean gelditzen da. Etorkin gehienak gizonezko gazteak izaten dira, 25 urte ingurukoak.

"Hirurehun afrikarren garbitasunerako bi iturri eta bi dutxa besterik ez dago. Jateko ere gutxi".




"Une honetan hogeit mila errefuxiatu politiko daude munduan eta berrogei milioi gosearen eraginez ihes eginda".

BEHARRAK BULTZATUTA

Etorkin bakoitzak bere arrazoiak ditu sorlekutik ihes egiteko. Gosea izaten da arrazoi nagusia, baina gudan egoteagatik edo polizien gandik ihes egin beharraz aldeingandakoak ere badira. Beste askok etorkizun hobeagoa bilatzeko itxaropenarekin hasten du bidaia luze eta arriskutsua "Oso idealistak dira. Ceutara heldu eta dena eginda dagoela uste dute. Bertan ostera, oso bestelako errealitatearekin egiten dute topo eta etsita geratzen dira. Hala ere, fede handiko jendea da eta Jainkoarengan konfidantza itsua du: "Animaliak bezala bizi gara, baina Jainkoarengan konfidantza daukagu eta lagunduko digu", esaten ziguten.

EGOERA JASANGAITZA AZKENEAN LEHERTU

Etorkinen egoera larri eta kritikoa urriaren 11an leheratu zen. Jabi ez da harritu gertatutakoa gertatu izanagatik, bera joan aurretik ere istiluak bizi izan ziren eta. "Afrikar hauek penintsulara joateko hilabeteak egoten dira bai-



Jabi Luengo, Arrasaten ikasten duen tolosarra.


menaren zain eta egoera penagarrian. Ez dute ezer eta ezin dute ezer egin, erreta daude. Euren herrietatik irtetzen direnean Europara joateko baimena azkar lortuko dutela uste dute, baina hori ez da egia".

Etorkin kurdiar batzueri Estatuan bizi izateko baimena eman zietela jakin zutenean egin zuen eztanda arazoak. Etorkinak harrika hasi ziren Ceutarren kontra. "Ceutako biztanleek ez dituzte etorkinak begi onez ikusten eta istiluen ondoren guztiz kontra jarri dira. Itxura baten jende nahiko arrazista ematen du, sekula ez dute Anguloan bizi diren pertsonen alde ezer egin eta bertako Gobernuak ere ez du ezer egiteko asmorik. Udalak dio egoera hobetzen bada gehiago etorriko direla eta hori ekiditzeko ez du inolako laguntzarik ematen".

Estatuko atzerritar legea oso arrazista dela esan daiteke. Edozein afrikarrek Estatura sartzeko bisatua behar du izan. Kontuan izanda euren herrialdetan Espainiako Kontsulaturik ez dela egoten, ezinezkoa egiten zaie lortzea. Gainera, Espainia atzerritar gutxien onartzen duen herrialdea da. Bertan legalki bizi izateko diru iturriak dituztela justifikatu behar izaten dute.



Gutxienezko bizi baldintzarik ez dute afrikarrek.



Lanerako baimen barik ezin dute ezer egin Europan.

Erresidentzia baimena lortzeko 5.000 pta egunero, itzultzeko biletea, bizitza aseguroa eta etxe bat edukitzea eskatzen da. Lan baimena lortzeko lan kontratua. Baldintza gehiegi jateko lain ez duen pertsona batentzat. "Erresidentzia baimena emateko orduan desoreka handiak daude. Etorkinen artean desberdintasun asko dago eta afrikarrak azkenak izaten dira baimena lortzen".

IRTENBIDE ZAILA

Inmigranteen arazoak ez du irtenbide samurrik. Lehen munduko herrialdeak inmigratio mugimendu hauen eragileak dira. Herrialde garatuek garapenerako ate guztiak aspaldi itxi zizkieten 3. munduko herrialdeei. Aberatsen handikeri eta burukoikeriagatik bizi dira 3. munduko biztanleak bizi diren moduan eta laguntza eskatzen dutenean ez dira kapaz tajuzko ezer egiteko. ONUk mendebaldeko gobernuen euren aurrekontuaren % 0,7a eskatu zien 3. munduari eskaintzeko. Eskatu eta

onartu egin zen, hala ere, gaur arte ez da betetzen hasi. Afrikarren arazoari bakarrik epe motzeko irtenbidea ikusten zaio une honetan "Ceutatik etorkinak Estatura ekartzea litzateke oraingo irtenbidea,

baimena eman eta lana aurkitzeko bidea irekitzea. Luze oso zaila ikusten da konponbidea. Inmigratioaren arazo gosearen arazoarekin lotuta dago eta tartean beste zenbait arazo daude. Afrika-

Arrasateko Udala laguntzearen aldeko

Arrasateko Udalean SOS Arrazakeria eta Emauseko Traperok elkarrekin bidalitako gutun bat jaso dute Ceutan dauden afrikarrei laguntzeko. Proposamenean 5 afrikar urte baterako ekartzea eskatzen da, 638.750 pta. etorkin bakoitzarentzat. Joseba Ugalde giza zerbitzuetarako arduradunak begi onez ikusi du SOS Arrazakeriak bidalitako proposamena, batez ere, helburuak ondo zehaztuta daudelako. Josebak adierazi duenez, pertsona horiek hona ekartzen badira, etorkizuneko perspektiba batekin etorri behar dira. "Bi edo hiru hilabeterako ekarri, etxea eman eta beste laguntzarik ez badute jasotzen, hemen ere nekez bizi izango lirake. Eskuarrean dugun proposamena ondo landuta dagoela uste dugu eta astelehenean gizarte zerbitzuetarako izan genuen bileran aipatu zen gaia. Orain ikusi behar da dirurik badugun. Horrela bada, ahal dugun neurrian laguntzeko gertu gaude. Proposamenaren arabera etorkinak ez ziren Arrasaten bizi izango, Donostiako harrera zentruan baizik eta gure laguntza ekonomikoa izango da".

rrekin gertatu dena ez da gauza itxia eta hemendik aurrera sarri sarri gertatuko dira horrelakoak".

Une honetan, 20 milioi errefuxiatu politiko daude munduan eta 40 milioi gosekoak dira bultzatuta ihes eginda. 30 urtetan 5 mila bilioi biztanletik 9 mila bilioira pasatuko da mundua eta %80a hirugarren munduko herrialdetan biziko da. Inmigratioaren arazo okerrera doa egunetik egunera eta orain arteko jarrera ez bada aldatzen ondorioak dramatikoa izan daitezke.

Ceutako etorkinekin egon diren lagunek egoera beltz horri behin behineko irtenbidea aurkitu nahi diote orain "Prentsaren bidez arazo kaleratu eta salatu nahi dugu, zer gertatzen den jakinarazi. Udaletara jo behar dugu laguntza eskatzeko, jendea hona ekarri. Beharbada ez da irtenbide onena baina une honetan egin dezakegun bakarra da".


Gasteizko Udalak SOS Arrazakeria erakundearekin batera dagoeneko 5 afrikar ekarri ditu. Gasteizen bizi izateko aukera eman die, bertan erroldatuz eta osasun aseguroa emanez. Orain lana aurkitzeko laguntza ematen ari da. Jabik eta bere lagunek beste udal batzuk neurri bera har dezatela nahi dute eta hori lortu guran Arrasatekora ere zuzendu dira. "Udaleko arduradunekin hitz egin dugu eta proposamena idatziz bidaltzeko eskatu digute. Hortan ari gara. Bide batez, SOS Arrazakeriarekin ere harremanetan jarri gara euren laguntza jasotzeko. Guk ez dugu indarrak eta pisuzko erakunde baten bultzada behar dugu gure proposamenak gauza daitezen".

Laguntzak heldu bitartean egoera penagarrian bizi izaten jarraituko dute etorkin afrikarrek, itxaropenaren putzua poliki-poliki agortuz doa.

Beteranoetan bi arrasatear podiumera: M. Jose Gil eta Francisco Andres

Atletismoko Juan Ramon Arana memoria burutu zen domekan Aretxabaletan. Eguraldia lagun korrikalari asko elkartu zen eta ikusleek ere bikain erantzun zuten. Lehen

frogak goizeko 11etan hasi ziren eta memorialak eguerdiko ordu bata arte iraun zuten. Lasterketetan arrasatear askok hartu zuten parte eta mailaz maila zer egin zuten ondoren jakingo dugu:



Abdel Hayid marrokiarra izan zen senior mailan irabazlea.

Infantil mutiletan 26 partaidek hartu zuten parte, 10 arrasatearrak. Emakumeetan ez zen Arrasateko ordezkariarik egon:

5. Fernando Diaz (4'59" 18)
6. Jonatan Perez (4'59" 50)
8. Iñaki Juez (5'00)
14. Unai Elorza (5'16" 59)
18. Oscar Gavilan (5'33")
19. Aitor Mentxaka (5'39")
20. Remi Diosdada (5'40")
24. Jon Etxeberria (6'36")
26. Gary Spruce (6'42")

Kadete emakumeetan 4 partaide izan ziren eta arrasatear bakarra. Gizonezkoetan 10 korrikalari eta 3 arrasatear:

Emakumeak

3. Ihintz Bengoa (6'01")

Gizonezkoak

4. Juan Juez (7'26")
5. Oliver Fernandez (7'35")
10. David Del Hoyo (8'26")

Junior gizonezkoetan 10 partaide, Arrasateko ordezkari bakarra:

7. Martin Davila (17'13")

Senior eta beterano gizonezkoetan 71 korrikalari hartu zuten parte eta goi mailako atletak izan ziren, tartean 8 arrasatear:


22. Francisco Andres (24'12")
- Beteranoetan txapelduna
23. J. Ramon Petreñas (24'29")
25. Alejandro Altuna (29'52")
32. Jose Galan (25'38")
38. Manuel Anguas (26'11")
50. Ruben Ramos (28'52")
52. J. M Silvar (33'47")

Junior, senior eta beteranoetako emakumeek elkarrekin egin zuten korrika. 13 emakume izan ziren hasierako lerroan eta horietatik hiru etxeko taldekoak.

8. M. Jose Gil (19'26")

Beteranoetan lehen postua eskuratu zuen.

12. M. Carmen Garcia (20'31")
13. M. Jesus Delgado. (23'34")



EGVZKIGRAF

**Grafikagintza. Tipografia.
Offset industrialia**

Aretxabaletako industrialdea, F-0-4 Tfnoa: 79 18 44 - FAX: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

HIES EKIMENA

**Astelehen, astearte
eta ostiral
Setatik 8etara.**

Tfnoa: 79 26 99

Mondra sailkapeneko zuloan

Neurketa bakarra irabazi du gaur arte

Mondra partiduak ezin irabaziz dabil aurtengo denboraldian. Hasieran batxe txikia ematen zuena, une honetan arazo handia da. Domekero domekero Zivojevicen taldeak ez du maila erakusten eta dagoeneko 9 ihardunaldi jokatu dira. Jakina da jokariak gazteak direla eta 3. mailan esperientziarik ez dutela, baina hori ezaguna zen hasieratik. Beraz, taldea zuloan ittota ikusi nahi ez bada, neurriak hartzeko ordua da. Jokalariak 3. mailan jokatzeke gaitasuna badute. Orain dagokionak jokalariei bakoitzaren onena ateratzen asmatu beharko du. Hori lortu arte, larri eta estu ibiliko da taldea.

Domeka honetan neurketa zaila izango du Mondrak eta garaipena lortzeko gorriak ikusi ditzake. Aurrez aurre Mondra eta Aloñamendi taldeak izango dira Atxabalpen arratsaldeko 4etan. Oñatiko taldeak hiru neurketa galdu ditu, hiru berdindu eta hiru irabazi, 12 punturekin sailkapeneko 12. tokian dago. Derbia gogorra eta bizia izango da eta meritu gehien egiten duen taldeak eskuratu ditu puntuak.

Asteazkenean denboraldiko 11. ihardunaldia jokatuko du Mondrak Basconia- ren kontra Basaurin arratsaldeko 5etan. Talde bizkai-



Aloñamendiren kontra ezin du huts egin 3. mailako Mondrak domekan.

tarra sailkapeneko 2. tokian dago 18 punturekin, Zalla liderrarekin parekatuta.

Emakumeek bestalde, derbia jokatuko dute Aloñamendi taldearen kontra zapatuan Oñatin. Neurketa horretarako Juanina Garai entrenatzaileak hiru baja izango ditu: Saioa Baena, Amaia Luengo eta Susana Santor. Domu Santu egunean Atxabalpen Hondarribia taldearen bisita jasoko dute Mondrako emakumeek eguerdiko 12etan.

Urbina Maltzaga eta CAB Coruña Iturripen

Samaniegoren mutilen aurkaria CAB Coruña taldea izango da domekan arratsaldeko 6etan. Urbina Maltza-

gan mutil guztiak jokatzeke gertu daude eta aurrean izango duen taldea irabazteke modukoa da. Talde galiziarra 8 punturekin 14. tokian dago. Gaur arte 2 partidu irabazi ditu eta 4 galdu. Neurketa hasi aurretik David Scott taldeko jokalariei ohiari omenaldi txiki bat egingo diote. Scott jokalaria Ourense taldean ari da eta zapatuan Taugres Basconia taldearen kontra neurtuko ditu indarrak; domekan berri, Arrasaten izango da Indianako jokalaria. Asteazkenean euskal derbia egongo da ikusgai EBA ligan. Iruñako Señorío de Zuasti eta Urbina Maltzaga arituko dira nor baino nor arratsaldeko 6.15etan. Azken partiduetako emaitza erperi-

katzen bada bi garaipen jarraian lor ditzake Arrasateko taldeak.

Eskubaloikoek atsedena

Lehen mailako eskubaloi taldearen arerioa Cantabria izan zen domekan eta 21na berdindu zuten bi taldeek. Arrasatearrek txarto hasi zuten partidua, bigarren zatiko azken minututan ostera, erreakzioa etorri eta gutxienez berdintzea lortu zuten. Puntu garrantzitsua lortu zuen Rosa Lasagabasterren taldeak Santanderren. Asteburu honetan atsedena izango dute eskubaloikoek eta datorren domekan Iturripen neurkuko dituzte indarrak Trapaga taldearen kontra.

ESLU
ileapaindegia

Tfnoa: 79 37 88
ARRASATE

lurrindegia perfumeria
ZARRAOA

- Estetika kabinetea
- Larruzko artikulak
- Bitxitegia
- Opariak

Kanpatorpea, 4
Tfnoa: 79 12 19 ARRASATE

● *Antonio Cancelo*

MCCko lehendakari berria

Antonio Cancelok kooperatiben munduko lehen pausuak Eibarko kontsumo kooperatiba batean eman zituen. Beranduago, Eroskin sartu zen. Javier Mongelos jubilatu ondoren, MCCko Kontseilu Orokorreko presidente kargua eskuratu du. Karguhartze berriaren ondorioz prentsaurrekoa eskaini du orain gutxi.

- Udan kooperatiben izatera alda daitekeenaren inguruko berriak zabaldu dira...

- Munduaren norabideak kooperatiba izaerarik ez duten egiturak sortzera behartu gaitu, baina gure filosofiaren oinarri izaten jarraitzen dute gure esperientziaren zutabe izan diren printzipioak. Horregatik, kooperatiba ez diren egitura batzuetan kooperatiben berezko elementu batzuk txertatu ditugu, batez ere bi aldeetik ikusita: batetik langileen parte hartzea enpresen kapitalean eta ondorioz partaidetza emaitzetan; bestetik partaidetza gestioan.

- Lau urterako izendatu zaituzte, aurrera begira zer?

- Kontseilu Orokorrak erabakitzen duena besterik ez dut


egin behar, ez pertsonalis-morik. Nire erizpideen ekarpena egin dezaket, gauzak egiteko era, balore batzuk garatuz. Niretzat ez da arraroa orain arte egin den bidea, hasieratik bertan egon naiz eta bat nator. Eskakizunen araber, tresna egokiagoak garatzen saiatu behar dugu.

- Eta praktikan?

- Talde-lanaren ikuspegitik lan egin behar dugu. Eskulanaz ezagutzen dena hori baino gehiago da, eskulan horrek pentsatzeko gaitasuna ere badu eta. Hori aprobeztatzea derrigorrezkoa da, pertsona osotasunean hartu eta bere gaitasunak garatzeko aukera eman. Korporazioa 28.000 pertsona izanagatik da aberatsa, ez lehendakari berria edukitzeagatik. Izpiritu hori zabaldu behar dugu, langile bakoitza dagokion tokian dagoela ziurtatu eta laguntza osoa eskaini.

Nazioartean zein politika eraman definituta dugu eta ondorioz bultzatu egin behar dugu. Ekonomikoki munduan gero eta muga txikiagoak daude, kontsumitzaile globalen eta potentzialen kopurua gorakada eta egoera horretara egokitzea komeni da.

● **“Korporazioa 28.000 pertsona izateagatik da aberatsa, ez lehendakari berria edukitzeagatik”.**



Azkenik esan egiten dugunagatik harro egin behar dugula, gauzak gogoz egin. Egiten dugunean sinisten ez bada ez dago zer eginik.

- Noiz bukatuko da internazionalizazio prozesua?

- Plana 2.000. urtera arte planteiatuta dago. Proiektuak onak badira bitarteko finantzieroa aurkitu edo jarriko dira; egin ezinak badira ez, noski. Hori baino garrantzia handiagoa du zuzentzeko gaitasunak, hori barik ezin gara inora joan.

- Zergatik kanpoan inbertitu eta ez hemen?

- Gaur egun argi dago inork ez duela aberastasunik lortzen kanpoko merkatua ikutu barik. Kanpoan egin-dako inbertsioak garrantzia handia du eta hemen garatzeko gaitasun handia dugu.

- Aurten zurrumurruak en-

tzun dira, banaketa egon dela langile eta zuzendaritzen artean, sindikatuen inguruan...

- Zurrumurruei ez diet kasurik egiten. Gure egituran barne-antolakuntzak du garrantzia, ez sindikatuek. Egunen batean kontseilu sozialak planteiamendu hori egiten badu, erantzun egin beharko zaio, baina kontseilu sozialei, ez sindikatuei. Egitura berriak sortzen diren heinean, banaketa areagotu egiten da eta ardura hori badut, baina parte hartzeko tokia kooperatibak izaten jarraitzen du.

- Itxura batean burtsako asmakizuna geldituta dago...

- Asmo horren inguruan ez da datarik eman. Nire ustez denborak ez du garrantzia handiegirik, tresna ondo egiteak, berriz, bai, merkatuan ondo saltzeko ikertzea zirkulazioan jarri aurretik.

- Mongelosen izendapen berriaz zer?

- Hartzen dituzten erabaki guztiak horrelakoak badira, etorkizun ezin hobea izango du erakunde horrek.

Mikel Lezamiz

Mondragon eta America

Ba al dakizue Estatu Batuetako Unibertsitateetako irakasle gehienak guztiz interesaturik dabiltzala Arrasate Kooperatiba Taldea dela eta, eta "Mondragon" hitz ezaguna zaiela?

Hemen kooperatibak badaude, baina nahiko desberdinak guk ezagutzen ditugunatik: erosleenak (kontsumitzaileenak bakarrik), etxebizitzakoak, baserritarrenak beraien produktua saltzeko, kreditozkoak ere bai, eta guztietan langilegoa ez da bazkidea. Beraz, ikusten duzuen ez dira MCC-koak bezala, hor langileak bazkideak baitira, eta horregatik dira famatuak "employee ownership" ("langile ugazabak") direlako eta sistema ekonomikoaren artean hirugarren bidea bezala ikusten gaituztelako.

Baina badira beste mota bateko kooperatibak: ikasleen kooperatibak. Eta bi eratakoak daude unibertsitate dagoen hiri askotan: ikasleen etxebizitza kooperatibak eta ikasleen liburutenda kooperatibak. Bien arrazoia zera da: merkeago lortzea etxe alokairua edo liburuak bitartekoaren (intermediarioen) gastuak gutxituz.

Etxe kooperatiben mugimendua nahiko ugalduta



dago Ipar Amerika osoan (Estatu Batuak eta Canadian) eta guztien koordinakunde bat ere badago oso garrantzitsua dena (North-American Students of Cooperation - NASCO). Etxeak kooperatibaren propietatea dira eta ikasle batek alokatu nahi baldin baditu, merkeago lortzen ditu. Etxe hauen komunitate barruan beste zerbitzu asko eskeintzen da, adibidez bizikleta salmenta, alokairua eta

konponketa, erropa garbiketara, etabar. Biztanleak kooperatibaren normak onartu behar ditu: Batzar Nagusira joan eta aukeratzeko badute Kontseilu Errektorean parte hartu kooperatiba gobernatzeko.

Arrasaten ere Unibertsitate handi bat daukagu eta ikasle asko bizi da gure inguruan. ALECOP kooperatiba ere hor daukagu ikasleei diru iturri bat emateko. Badirudi beste adibide hauek ere aberatsak izan

daitezkeela. Arrasate aspaldi honetan gauza berriak egiten aintzindaria izan da, hala nola: Kooperatibak, ARRASATE PRESS eta ATB. Honetan ere zergatik ez exenplu berriak jarri Euskal Herriko Unibertsitateentzat? Ideia interesgarria iruditzen zait. Ea norbait animatzen den.

*Cornell University,
Ithaca, New York*

IBARRA
Garajea S.L.



EBRO
NISSAN

Garajea
Automobil-konponketa
Garabi zerbitzua



- Garbitasun orokorraketa mantenimendua: etxebizitzak, atariak, dendak, bulegoak, kristalak, etab.
- Edozein zoru motari dizdira ateratzea.

Santana auzoa, 4 etxabea Tfnoa: 71 48 45 ESKORIATZA

ITSASKI

ARRANDEGIA

Arrain freskoa
eta jaki izoztuak

Uribe Auzoa
ARRASATE
Tfnoa: 79 98 94

Gaizka Olabarrieta eta Jon Sagasta Argazkilaritza munduan hasiera ona

Gaizka Olabarrieta eta Jon Sagasta arrasatearrek ASAk, Lurrats Elkarreak eta Udaleko Gazteria Zerbitzuak antolatutako "Gazteok Bizikletan" VI. Lehiaketako gazte mailako lehen eta bigarren saria lortu dute. Hamasei urte besterik ez, baina argazkiak ateratzeko gaitasuna badutela erakutsi dute.

— Non ikasi duzue argazkiak ateratzen?

— **Gaizka:** Duela 2 edo 3 urte ikasi nuen ikastolan. Gero ASA argazkilari taldeko bazkide egin nintzen eta han ere izan dut gehiago ikasteko aukera.

— **Jon:** Profesionalean ikasten dut eta artistikako klaseetan argazkilaritza eman genuen. Han ikasi nuen eta gero ASako bazkide egin nintzen ni ere.

— Argazki lehiaketa baten parte hartu eta irabazten duzuen lehen aldia izan da hau?

— **Gaizka:** Lehiaketa askotan hartu dut parte baina hau izan da saritutako lehena.

— **Jon:** Bi lehiaketetan hartu dut parte eta hau da jasotzen dudana lehen saria.

— Non egin zenituzten saritutako argazkiak?

— **Gaizka:** Burgos aldeira joan ginen elkarrekin eguna pasatzera eta argazki kamara eraman genuen. Bizikletazale batzuk ikusi genituen eta aukera aprobetxatu genuen. Dena dela, ez genituen lehiaketa honetarako pentsatuz egin.

— Zer ikusten da zuen argazkietan?



— **Gaizka:** Nirean gazte bat bizikletaren gainean mendian; behealdean berriz, herri txiki bat. Txuribeltzean egin nuen.

— **Jon:** Nirea ilunabar batean ateratakoa da. Kolore gorria da nagusi eta pertsona bat bizikletan ikusten da. Koloretan atera nuen.

— Argazkia errebelatzerakoan manipulatu duzue?

— **Gaizka:** Ez, ez dut manipulatu nahiz eta ni neuk ASA elkartean errebelatu dudana.

— **Jon:** Nik ere ez. Koloretakoa da nirea eta berez ondo atera zen. Zortea izan nuen.

— Edozein egunetan kamara hartu eta argazkiak egiten edonora joaten diren horietakoak zarete?

.....
“Edozein egunetan kamara hartu eta argazkiak egitera joaten gara”

— **Jon:** Bai, edozein egunetan kamara hartu eta argazkiak egitera joaten gara.

— Zer ateratzen duzue argazkietan?

— **Gaizka:** Batez ere paisaiak, hemengo paisaiak.

— Honez gero, argazki artxibo handia izango duzue etxean, ez?

— **Gaizka:** Beno, batzuk bai baina ez gehiegi.

— **Jon:** Nik ez ditut asko. Urtebete besterik ez daramat eta oraindik gutxi atera ditut.

— Maila handia egon da lehiaketan?

— **Gaizka:** Gazteen artean ez baina helduetan bai, oso ona.

— **Jon:** Gazte mailan 8 argazki baino ez ziren bildu, 4 partaide besterik ez ginen aurkeztu, guztiak eskualdekoak.

— Espero zenuten irabaztea?

— **Gaizka:** Egia esan, ez.

— **Jon:** Sorpresa eta ilusio handia izan da.

LABURRAK

Arrasate 95 lehiaketak

Datorren astelehenean amaitzen da AEDk antolatutako komiki, argazki, diapositiba, bideo, ipuin, poesia eta bertso-paper lehiaketetan lanak aurkezteko epea. Era berean, egun horretan amaitzen da Jokin Zaitegi IX. Itzulpen laburren sariketako epea ere.

Sari banaketa berriz, abenduaren 21ean izango da Monterronen. Finalistei aurrez abisutako zaie telefonoz.

Arizmendarreta lehiaketa

Azaroaren 7an amaitzen da Gizabidea Fundazioak antolatutako Jose Maria Arizmendarreta X. Lehiaketan lanak aurkezteko epea.

Sari banaketa berriz, azaroaren 30ean egingo den ekintza akademikoarekin batera egingo da. Arratsaldeko 6.30etan Eskola Politeknikoan izango da ekintza akademikoa eta Carlos Diazek, Filosofian doktoreak eta Madrilgo Unibertsitate Complutenseko irakasleak, hitzaldia emango du. Izenburua "Una mirada Personalista y Comunitaria a las Cooperativas desde el Mundo de los Pobres" da.

Ludoteka ibiltaria

Txatxilipurdi-AEDko Ludoteka Ibiltaria Erguin auzoan egongo da urriaren 28an, azaroaren 4an eta 11an. Ordutegia goizeko 11etatik ordubatera eta lekua Erguingo Eskola Publikoan. Ludoteka OHoko 1, 2, 3, 4, 5, 6, 7 eta 8. mailakoei zuzenduta dago eta haurrek jostailu pilo bat izango dute aukeran. Eskulanak ere egin ahal izango dituzte.

Datorren asteburuan musika klasikoko kontzertuak protagonista

Arrasate Musikalek bere kontzertu egitarauarekin aurrera jarraitzen du. Joan den astean Txileko Orkestra Sinfonikoa izan zen Arrasaten eta datorren asteburuan beste bi kontzertu izango dira.

Azaroaren 4an Euskadiko Orkestra Sinfonikoko Hirukoteak eskainiko du emanaldia eta 5ean Miren Zubeldia txelolojleak eta Ana Teresa Rodriguez pianujoleak.

Txeloan eta pianoan

Miren Zubeldiak 11 urterekin hartu zuen lehen aldiz txeloa eta bere aitaren eskutik jaso zituen lehen eskolak. Ikasketak Baionako kontserbatorioan Jacques Doué irakaslearekin sakondu zituen eta bertan Erdi Mailako Lehen Domina irabazi eta Azken Mailako ikasketak bukatu ondoren, Donostiako Goi Mailako kontserbatorioan Roman Jablonski irakaslearekin ikasi zuen. Berarekin ohorezko aipamena eta bikaineko kalifikapenak lortu zituen. 1992tik hona Espai-



Maria Jesus Gonzalez eta Miren Zubeldia donostiarrak.

niako Gazte Orkestraren partaide da. 1993an Arrasate

Musikaleko txelo irakaslea izan zen eta 1994tik Santan-

derko Kontserbatoriokoa da.

Ana Teresa Rodriguez pianujolea Donostian jaio zen eta bertako kontserbatorioan ikasi zuen Maria Jesus Fagoaga eta Jesus Gonzalezen zuzendaritzapean. Goi Mailako ikasketetan bikain eta epai-mahaiaren zorion kalifikapenak lortu zituen. Baionako kontserbatorioan Mure Doué katedradun irakaslearekin urrezko domina irabazi zuen piano eta ganbara musikako goi mailako ikasketetan. 1992tik hona Barañaingo kontserbatorioko irakaslea da. Bakarleri edota taldekako partaide gisa, zenbait emanaldietan parte hartu du: gaur egun bi pianoko talde baten sortzailea da.

Bi musikariek Bach, Faure, Couperin, Beethoven eta Popper-en obrak joko dituzte.

Kontzertu hau arratsaldeko 7.30etan izango da eta sarrerak takilan bertan salduko dira. Arrasate Musikaleko bazkideentzat dohainik izango da eta gainontzekoek 500 pta. ordaindu beharko dute.



Parques y Jardines


Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)



urten 25 urte bete dira euskal udalekuak lehenengoz egin zirenetik. Halako data esanguratsua ospatzeko, urriaren 21ean bildu ziren Lasarten udalekuetan monitore lana betetzen ibili izandakoak, 300 inguru. Makina bat aspaldiko ezagun ikusteko aukera izan zuten ba Lasarten bildu zirenak. Gero toki gehiagotan egin baziren ere, Beiren, Saturraranen, Abaigarren, Barrian eta Ancin-en egin ziren lehen euskal udalekuak. Memoria freskatzeko hona hemen bigarren udalekuetako argazki pare bat, Beireko (Olite ondoan) udalekuan ateratakoak. Monitorea agertzen dira goikoan, ezkerretik eskumara. Zutik: **Pili Elkorobarrutia, Glori Otsoa, Garbiñe eta Isabel Mazmela**; Makurtuta: **Feli Biteri, Maite Zumalde, Nekane San Miguel eta Kontxi Mendikute**.

Beste argazkian, ume kuadrila bat mozorrotuta. Hogei egun inguruko egonaldia izaten zen eta bat mozorrotuta pasatzen zuten, ume guztien artean bi arrasatear daude, ezkerreko biak.



PARDO estetika zentrua

- DEPIŁAZIO PROGRESIBOA
- DEPIŁAZIO ELEKTRIKOĀ (BLEND METODOĀ)
- DEPIŁAZIOĀ ARGIZARĒHOTZ ETA BEROĀREKIN
- SOLĀRIUMA (ĒUTXAREKIN)

%10eko
deskontua
Gazte-txartelarekin

AURPEGI ETA GORPUTZERAKO TRATAMENDUAK

- Drainaketa linfatikoa.
- Erreafirmatzailea.
- Elektroeskultura eta ultrasoinuak.
- Antizeluliti murriztailea.
- Mantenimendua.

SENDAGILE-DIETISTAREN KONSULTA

- Dieta personalizatuak, medikuaren kontrol eta aholkuarekin.


Iparagirre enparantza, 4 Behea. Grupo San Juan
☎: 79 52 17 ARRASATE

Z E R N A H I A G O ?

Santi

"Muxibar" jatetxeko sukaldaria

- Erabiltzen duzu sukaldari txapelik? Ez.
- Argiñano ala Subijana? Subijana.
- Zein janari prestatzen duzu goxoen? Gisauak.
- Zein plater eskatzen da gehien? Pizzak eta lasa-ñak.
- Zuri zein gustatzen zaizu gehien? Perretxiko nahas-keta.
- Eta postrerako? Reineta sagarra edo moskatel mahatsa.
- Pizzen sekretua masan ei dago... Hori gezur handia da; sekretua masa prisá barik eta gogoz egitea da.
- Zenbat pizza egiten dituzu ordubetea? Ordubetea ez dakit, baina 6 minututan 6 pizza bai.
- Egunean zenbat ordu sartzen dituzu sukaldean? Hamar.
- Horrenbeste janari italiar egin ondoren, nazka hartu diozu? Ez.
- Janari italiarra, txinoa ala Euskal Herrikoa? Euskal sukaldaritza tradizionalarekin geratzen naiz.
- Bitrozeramika ala ohiko suak? Ohiko suak.
- Etxeko janaria ala jatetxetakoa? Etxekoa eta nik egina bada hobe.
- Txikitan zein janari ez zitzaizun gustatzen? Txerri hankak.
- Arrasatearrek badakite ondo jaten? Baietz uste dut.
- Hemen lan eginda gisendu ala argaldu egin zara? Berdin jarraitzen dut.
- Alergiarik baduzu? Jende maltzurari bai.
- Izan duzu inoiz bezeroen kexarik? Kexa larrik ez baina bai betikoak.
- Etxean baduzu sukaldaritza libururik? Batzuk bai.
- Kamareroek presa asko sartzen dizute? Ez, hemen sukaldariak agintzen du.
- Plater asko ahazten duzu? Ez.



BERTSOAK

Autobus geltokiak kendu Musakolan eta San Andresen

Gaur Musakolan eta San Andresen jende asko bizi garenez gure egoera salatzen gatoz hemen protesta eginez gaixo, elbarri eta ikasleak urruti joan behar oinez PESA enpresaren agintariak oroituz zaite mesedez gu ere pertsonak garela behintzat nahiz eta kotxerik izan ez.

Sendagileana gaixo etxera asko doaz Gasteizera zoritarrean joan ezinean gehiegi ikusien dira orain urrutira kendu diote lehen bertan zuten aukera bihotza harriz egina dugu errukitzen ez bagara behartsuentzat zigor guztiak hori da nere galdera.

Herri erdiko geltokia ere dago zeruz estalita dauden aulkiak ere sarritan zikinak edo bustita nonbait kotxerik ez daukagunok gehio ez dugu merezita harrako ere gertu joan behar gauza hauek ikusita euria bada, aterkiakin hotz bada, ondo jantzita.

AGARRE

KANPAZAR FIAT AZKEN BELAUNALDIA TEKNOLOGIAN.



BRAVO

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 184 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 193 Km/h)
2.0 20v (147 cv, 210 Km/h)
1.9 D (65 cv, 155 Km/h)

ERAKUSKETA:
Araba Etorbidea, 4
ARRASATE
Tfnoa 79 77 66



BRAVA

1.4 12v (80 cv, 170 Km/h)
1.6 16v (103 cv, 180 Km/h)
1.8 16v (113 cv, 190 Km/h)
1.9 D (65 dv, 155 Km/h)

TAILERRA
Bizkaia Etorbidea, z/g
ARRASATE
Tfnoa 79 41 98

• ESAERA •

“Bihotzak baditu bere arrazoiak, arrazoiak ezagutzen ez dituenak alegia”


PASCAL

• JEROGLIFIKOA •



Zer sentitu zenuen?

• GURUTZEGRAMA •



J. B. AGORRIA

Horizontalak 1. Balanzategi, Lagun-Aroko lehendakari ohia. 6. Alkoholiko Anonimoak. 8. Jendeaurreko ekintza antolatua. 10. Unadura, akidura. 11. Emakumezkoa bere gurasoekiko. 12. Erbioa. 13. Nafarroako ibilgailuetan. 14. Aurritzia. 15. Zuhaitz. 17. Nafarroako udalerria.

Bertikalak 1. Alemaniako eskualde historikoa. 2. Jateko haragia. 3. Hegazti zure-bel-tza. 4. Atearen goiko aldea. 5. (Ald.) Biblian 1. gizonaren izena. 6. Buztin egosizko paralelepipedoa. 7. (Ald.) Marra. 9. Lutezioa. 14. Ahots. 15. Sexu maskulino duen animalia. 16. BAI hitzaren laburtzapena.

• HOROSKOPOA •

Aries Gauza guztiak ondo aterako zaizkizu. Hori entzun nahi zenuen?

Taurus Asko erretzen duzu, tximinoa dirudizu.

Gemini Mukiak kentzeko mukizapia. Garbitu esku horiek!

Cancer Artista bat egina zaudela esaten da. Noiz izango da aurkezpena?

Leo Dirua barra-barra baina ez duzu non gastatu.

Virgo Perretxikotan joan eta lokotzara ekarri? Hurrengoan izango da.

Libra Datorren astean oso lainotuta egongo da zure burua.

Scorpio Krudelak dira zure lagunak. Animoak eskatu eta eman ez.

Sagitaris Hunkigarria izaten da bikotea nola besarkatzen duzun ikustea.


Capricorn Txapela munduan eta ibili munduan. Oporrak amaitu dira, aizu!

Aquarius Esanak esan, zure emaztearen marka ez du inork hautsiko.

Piscis Bazkaldu eta lo hartu. Datorren astean 100 kilo.

Etxe-Aundi

Torreazo, 9
Tfnoak: 78 19 56 / 78 32 90
OÑATI



Zuen ezkontza gurekin ospatzen baduzue,
EZKONTZAKO CAVA GURE KONTU!!
Egin zure erreserba orain!!

Anna de Codorniu

TELEBISTAREN TXOKOA

“Mini-Twingo” kotxea Mondrasporten sarigai

A ze saria! Mondrasport saioan “Mini-Twingo” kotxea irabazi dezakezu. Nola? Erraz: Galdera simple bati baino ez diozu erantzun behar eta galdera honakoa da: Ze motako autoa da Laguna Break berria? Deportiboa, txikia ala familiarra? Erantzuna zure izena eta telefonoarekin batera paper batean idatzi eta Ekaitz eta Monte tabernetan utzi dezakezu. ATBra ere ekarri. Zozketa azaroaren 6an Mondrasporten egingo da, zuzenean.



PROGRAMAZIOA



27 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

30 Astelehena

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Mondrasport

31 Asteartea

19.30etan
Marrazki bizidunak
20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Barrelekaixoka

1 Asteazkena

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Zinea

2 Osteguna

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Dokumentala

3 Ostirala

20.00, 20.30 eta
21.00etan
Berriak
21.30etan
Astebete

KOMIKIA



Amaia. Ize-ixa komiki taldea.

Etxe-Aundi

1. PLATERA

Bi plater aukeran

Etxeko gozoteria

2. PLATERA

Haragia edo arraina

Etxeko ardo gorria eta beltza

Kafea

Guztira 2.500 pta. (B.E.Z. barne)

HIES EKIMENA

Astelehen, astearte eta ostiral 5etatik 8etara.

Tfnoa: 79 26 99

SOLUZIOAK

Horizontalak: 1.Roman, 6.AA, 8. Ertaldi, 10.Nekadura, 11. Alaba, 12. Er, 13. Na, 14. Bir, 15. Arbola, 17. Artazu.
Bertikalak: 1.Renania, 2.Okela, 3. Mfka, 4. Ataburu, 5. Nada, 6. Adre- lu, 7. Aiarra, 9. Lu, 14. Boz, 15. Ar, 16. Ba.
Jeroglifikoak: Biana.

Etxebizitzak

- **Neska bat behar da Donostian** pisu bat osatzeko (Okendo kalean). Tfnoa: 42 51 49.
- **Neska bat edo bi behar dira pisua osatzeko** Leioan. Tfnoak: 79 40 13 (Bea) - 79 02 20 (Eva).
- **Erdialdean dagoen garagea alokatzen da,** itxita. Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisu bat alokatzen dut** Udalpe kalean (Erguin). Tfnoa: 79 22 75.
- **Aukera paregabea.** Roneon garageak salgai, prezio onean. 79 21 61.
- **2 garage plaza alokatzen dira Maixorren.** Zerkaostetatik dauka sarrera. Tfnoa: 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Garage bat alokatzen da** Altamiran. Tfnoa: 77 03 22. Bulego orduetan.
- **Erdialdean 90 m²ko pisua salgai.** Tfnoa: 79 42 13.
- **Pisua alokagai Maialako Arrabalean.** Jantzita dago. Tfnoa: 77 02 59.
- **Pisua alokagai San Juanen.** Ikasle edo irakasleendako. Tfnoa: 79 39 02. Dei egin gauez.
- **Gasteizen bi logela alokatzen ditut.** Tfnoa: (945) 27 86 79.
- **Bi oheko gela alokatzen da.** Tfnoa: 79 07 73.
- **Etxabea alokatzen da Udalpe kalean** (Erguin). Tfnoa: 79 22 75.
- **Pisua salgai Erguin kalean.** Tfnoa: 77 02 01. Loli.
- **Garajea salgi Aldaigainen.** Tfnoa: 79 77 81.
- **Roneon lehen solairuan garaje itxia** alokatzen da prezio onean. Tfnoa: 79 18 95.

Lana

- **Haurrak zaindu** edo garbiketarako egingo nituzke. Tfnoa: 77 06 43.
- **Etxeko lanak egin** edo denda batean lan egingo nuke. 77 07 58 Ana Isabel.
- **Magisteritza daukan neska batek** OHOk klaseak ematen ditu, euskaraz edo erdaraz. 77 10 21, Montse.
- **Neska prest umeak zaintzeko** edo dendan lan egiteko. Dei egin 13.00tik 16.00era edo 22.00tik aurrera. Tfnoa: 79 95 92. Rakfel.
- **Andra geriatrian diplomaduna** eta erizain laguntzailea pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 34 53.
- **Neska euskalduna umeak zaintzeko** edo lokalak garbitzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Eguedietan deitu.
- **Erizain laguntzailea** eta gerontologian esperimentaduna pertsona nagusiak zaintzeko prest. Tfnoa: 79 30 85. Eguedietan deitu.
- **Aleman klaseak jasoko** nituzke, bakarrik edo taldeka. 10etatik aurrera. Tfnoa: 78 08 98.
- **Magisteritza titulodunak** OHOk klaseak emateko prest. Tfnoa: 79 98 73. Rakel.
- **Umeak zaindu** edota etxeko garbitasunak egingo nituzke. Tfnoa: 79 96 10. Eguedietan.
- **UBIra arteko edozein gaien klaseak** emango nituzke, euskaraz nahiz erdaraz, astelehenetik larunbatera arratsaldean. Tfnoa: 79 46 75. Gauez deitu.
- **Masaia terapeutikoa eta akupuntura.** Tfnoa: 79 18 02. Blanca Iñiguez.
- **Emakumea etxeko lanak egiteko gertu.** Tfnoa: 79 31 58.
- **Esperientziadun kamioi txoferra lan egiteko gertu.** Tfnoa: 79 07 31. Alfonso.

Salerosketak

- **Vespa Iris 200 salgai.** Tfnoa: 76 08 51.
- **Bibolin 1/2 salgai.** Soka markakoa eta egoera onean. Tfnoa: 79 25 85.
- **Gauerako bost akumuladore** elektriko salgai. Prezio eta egoera onean. Tfnoa: 79 87 90.
- **Rondaia talde baterako soinu-jolea behar da.** Tfnoa: 79 71 21.
- **Boxer arrazako txakurkumea salgai.** 77 00 17.
- **Optima SP 20 idazteko makina** elektriko salgai. Egoera ona. Tipex-a darama. Tfnoa: 79 11 54.
- **Suzuki Santana salgai.** Oso egoera onean dago, kilometro gutxiarekin. Tfnoa: 79 86 06.
- **Razesa txirriak salgai.** 52 neurrikoa. Egoera eta prezio ona. Tfnoa: 79 03 80'.

Denetarik

- **Gasteizera egunero** goizeko 8etarako joan behar baduzu eta tokia baduzu dei egin. Tfnoa: 79 61 19.
- **Bilbora egunero goizeko 9etarako** joan behar baduzu eta tokia badaukazu dei egin 79 15 33 tfno-ara.
- **Maritxu Kajoi egunean** txaketa urdin ilun bat desagertu zitzaidan Noski tabernan. Aurkitu baduzu dei egin 79 02 20 tfnora.
- **Urriaren 19an txakurra** desagertu zitzaidan. Artzain belgiar beltz bat da eta hiru hilabete ditu. Tfnoa: 79 60 10.
- **Uribe auzotik Eguzki dorrera** bitartean domina eta nortasun txapa galdu ditut. Dominak Ane izena darama eta nortasun txapak Rh-a. Tfnoak: 79 66 09 eta 79 40 64.

Aste Gazte

Bekak

• "Novia Salcedo" Fundazioak enpresa-proiektu ideia bat dutenentzat, Audax Plana deitu du. Lizentziatuei zein diplomatuak zuzenduta. Epea: azaroak 30.

Lana

• Leitzako Udalak (Nafarroa), euskarako teknikari bi behar ditu. EGA titulua eta erdi mailako ikasketak izatea eskatzen da. Epea: azaroak 8.
 • Zumaiako Udalak, administrari laguntzaile lanpostu bat kaleratu du. Epea: azaroak 8.

• Zumarragako Udalak, gizar-te laguntzaile lanpostu bat eta arkitecto lanpostu bat kaleratu du. Epea: azaroak 6.

Ikastaroak


• Gazteei zuzenduta, "Ffont-xongilo tailerra" Bergarako Taun-Taun kolektiboaren eskutik. Abenduaren 26an hasita 30era arte, guztira 10 ordu. Ikastaroa, IMIko lokaletan izango da, arratsaldeko 5etatik 7etara. Prezioa: 5.000 pta. (klaseak eta materiala barne), 3.500 pta. ikasle eta langabetuentzat. Plaza mugatuak.

• "Asetil" galiziar elkarteak, norberak bere kabuz (etxean, adibidez) lantzeko "Kale hezitzailea" ikastaroa antolatu du. Ikastaroa zati teoriko batez (50 ordu inguru), eta zati praktikoa batez (50 ordu gutxienez), osatuta dago. Prezioa: 20.000 pta. (15.000 pta. ikasle eta langabetuentzat).

Lehiaketak

• Harri-beltza "Hiesa zure objetiboaren helburu" argazki lehiaketa. Argazkilari afizionatu edo profesionaleri zuzenduta. Epea: azaroak 15.
 • "Café Teatro" kartel lehiaketa. Edonork har dezake parte. Lanak koloretan eginda aurkeztu behar dira. Epea: azaroak 10.

"Oso aldeko giroa dute gizarteetan intsumisoei (5.000 baino gehiago Euskal Herrian). Eta, hala ere, ez da nahikoa..."
BEGO MONTORIO
(EGUNKARIAN)



Informazio gehiago:
GAZTE ZERBITZUA
Tfnoa: 77 00 65

¡POR MIS MUERTOS!

TEATRO GEROA • TEATRO DE LA JACARA

AMAIA ANTZOKIA

GAUR

Urriak 27,
ostirala
Gaueko 22.30tan.

Sarrera 700 pta.
Gazte Txartelarekin
500 pta.



5 ISTORIO

Bernardo Atxaga
Sergi Belbel
Ernesto Caballero
Pepe Ortega
Alfonso Zurro.

5 ZUZENDARI

Jose Ramón Barea
Ernesto Caballero
Andrés Lima
Pepe Ortega
Alfonso Zurro.

Aktoreak

Maica Barroso, Begoña Bilbao,
Juan Luis Escudero, Rosa
Martinez, R. Eleazar Ortiz,
Alfonso Torregrosa.



Gipuzkoako
Foru Aldundia



ARRASATEKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE MONDRAGÓN

ALTZARIAK Berango

5 URTEKO GARANTIAZ

SUKALDERAKO EKIPAMENDU OSOA



- Bainu altzariak
- Armairu enpotratuak

*Gainera, orain,
Berangon
erositako
altzariak doan
lor ditzakezu!*

ERAKUSKETA


Legarre Pabilioia, z/g
Gipuzkoa Etorbidea
ARRASATE
Tfnoa: 79 01 92

IKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK



*Gama
zabalena
zure
eskura*



Kolore, azalera, materiale eta forma berriek aukera anitzak eskaintzen dituzte. 'IKER'en guzti hau zure espaziora moldatzen dizugu txoko praktiko eta beroak sortuz.

'IKER'en zure proiektua zure eskura dago.

FAGOR 

SUKALDE ERAKUSKETA

Udala Plaza, z/g
ARRASATE • Tfnoa: 79 00 43

BAINU ERAKUSKETA

Zarugalde kalea, 52
ARRASATE • Tfnoa: 79 99 42